


ttüpi-ttapa

1995eko irailak 21 • 166. zenbakia

Erreportaia

**Pirenaika arrazako
behi azienden
lehiaketa Elizondon**



**KOTETO EZKURRA
ERREMONTEKO ERREGEA**



Igantzikoko bestetan, herrikideen alaitasunarekin bat egiten dugu
Besta zoriontsuak!

GAN NAFARROAKO AURREZKI KUTXA



Igantzikoko Udalak besta onak opa dizkizue
Igantziar eta bisitari guziei

DATUAK.....

❖ 1991ko azaroan zabaldu zen IKAk Lesakan duen Matxinbeltzenea euskal etxea.

❖ Gaur egun lau zerbitzu daude bertan: Bortzirietako euskaltegia, barnetegia, ostatu-jatetxea eta albergea.

❖ Bortzirietako euskaltegian Beñardo Goietxe, Noemi de Mateo, Jabier Muguruza, Maixus Torres eta Gotzone Leonis (irakasleak), Mentxu Peña (euskaltegiko arduraduna) eta Jon Larretxea (etxearen koordinatzailea) arituko dira aurtan.

Bortzirietako Euskaltegia: «Matxinbeltzeneak fase berri bati ekinen dio datorren ikasturtean»

ZEIN ALDAKETA NA- GUSI IZANEN DITU MA- TXINBELTZENEAK AUR- TENGO IKASTURTEAN?

Aldaketarik nagusia, neguan barnetegirik ez dela antolatuko izanen da. Zergatik hori? Ba, aurtengo urte osoan ez dugulako Eusko Jaurlaritzatik subentziorik jaso eta horrek zulo dexentea sortu duelako. Gauzak horrela eta dirulaguntza lortu arte, udan ezik barnetegirik ez antolatzea erabaki dugu.

BERAZ, UDAKO IKASTAROETAZ APA- RTE, EZ DA BARNETEGI- RIK IZANEN?

Momentuz udako ikastaroak antolatuko ditugu, hala ere, urte guzira luzatzeko, hemendik edo handik dirulaguntzak lortzen saiatuko gara. Bitartean, neguan kanpoko taldeei eskainiko zaie lekua beuren barnetegiak, bilerak, topaketak... egiteko.

ZER DELA ETA EZ DUZUE EUSKO JAURLARITZAREN LAGUNTZARIK LORTU?

Dirulaguntza ukatzeko etxea Nafarroan dagoela jartzen dute aitzakitzat, nahiz eta gure ikaslegoaren erdia baino gehiago komunitate autonomoak



izan. Badirudi orain enteratu direla Lesaka Nafarroan dagoela.

ZER PASATUKO DA, ORDUAN, JATETXE ETA OSTATUAREKIN?

Ostatua alokatu edo komisioan eman nahi dugu. Orain arte dena geuk eraman dugu zuzenean baina aunitzetan ezin ailegatuz ibili

gara, era egokian ezin erantzunez. Modu horretan, guk euskararen irakaskuntzari lotzerik izanen dugu eta horretan zentratuz hobe izatea espero dugu.

ALBERGEA BULTZATZEKO ASMOA ERE BADUZUE. NOLA GAUZATUKO DA HORI?

Asteburu antolatuak eskaini nahi ditugu, horretarako mendia ongi ezagutu eta naturan aditua den monitore baten zerbitzua eskainiz.

GAINERAKOAN,

ZEIN ASMO DITUZUE AURRERANTZEAN?

Euskaltegian orain arteko lanarekin jarraituko dugu, aurtengoan ikastaro berezi batzuk antolatzeko asmoa dugu: Historiagintza ikastaroa (bertako historia) eta Errakuntzari buruzkoa ditugu buruan. Bertzalde 'Etxetik Plazara' proiektuak urte bat gehiagoz segituko du. Hasiera batean bi urtetarako pentsatua genuen baina izan duen harrera ikusirik, urte batez luzatuko dugu.

» *«Aldaketa nagusia neguan ez dela barnetegirik antolatuko izanen da, urte osoan ez baitugu Eusko Jaurlaritzatik subentziorik jaso eta horrek zulo dexentea sortu du.»*

PIRENAIKA ARRAZAKO BEHI AZIENDEN LEHIAKETA IGANDEAN ELIZONDON

Irailaren 24an burutuko da Elizondoko Merkatu Plazan pirenaika arrazako behi azienden Estatu mailako VIII. lehiaketa-enkantea. Behiekin batera, Auritz-Burgete arrazako zaldi aziendak eta latxa ardi aziendak ikusgai egonen dira egun horretan. Ekitaldia Baztango Balleko Etxeak antolatzen du, Nafarroako Gobernua, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministeritza, Nafarroako Nekazarien Kutxa eta Aspina, Ascana eta Aslana erakundeek laguntzarekin.

TESTUA :
AITOR AROZENA
ARGAZKIAK :
ARTXIBOA

Urtaro Baztan aldean izaten diren feria egunetaz gain, aurtengoan Estatu mailako azienda-lehiaketa-enkantea izanen dute irailaren 24an. Hasiera batean, bertako arrazak bultzatzeko helburua izanen du lehiaketa honek eta horretarako, abeltzainak mugiarazteko moduko sariak ere ezarri dituzte. Sail bakoitzeko irabazleak —behi aziendak zortzi sailetan banatu dira, zaldi aziendak zazpitan eta ardi aziendak hirutan— 12.000 pezeta-kosaria irabaziko du, 10.000 bigarrenak... Gainera, 15.000 pezeta-kosaria banatuko da behi azienden artean eta bertze ho-


rrenbertzeko dirutza emanen zaio umetako behirik onenari eta behirik adintsuenari.

Gisa honetako ferietan izaten den arazo nagusienetako bat azienden joan-etorriak eta sortzen ahal diren is-tripua saihestea izaten da. Gastu horietan laguntzeko, antolatzailerik behi azienda buruko 8.000 pezeta ordainduko dituzte, zaldi aziendengatik 6.000 pezeta eta ardi azien-

da lotearengatik —6 urruxa eta ahariko bat— 8.000 pezeta. Ekar-eramate gastuak ere ordainduak izanen dira. Dena ongi estalia egoteko, anto-



BEHIEKIN BATERA, LATXA ARRAZAKO ARDI ETA AHAREAK ETA AURITZ-BURGETE ARRAZAKO ZALTABEREAK IKUSGAI IZANEN DIRA ELIZONDOKO MERKATU PLAZAN



«Publizitate bezala balio dute lehiaketa hauek, baina axalean gelditzen dira»

■ **Bertako azienda arrazak bultzatzeko balioko du honelako lehiaketa batek?**

□ Lehiaketa hauek publizitate moduan ongi daude, baina axalean gelditzen diren gauza artifizialak iduritzen zaizkit. Sektorea arras marginatua eta estu dago, eta administrazioak ez du errealitate hori kontuan hartzen.

■ **Nekazarien ikuspegitik, salerosketarako baliagarriak dira?**

□ Salerosketa batzuk egiten dira, baina kasik erraten ahal da horrelako lehiaketetara nekazariak espektadore bezala gaten direla. Konkurtsoetara zenbait nekazari gaten dira, doike, baina gehienek ogibide printzipala ez da nekazaritza.



Juan Martin ALEMAN

Amaiurko nekazaria.

■ **‘Nafarroako Aretzea’ denominazioari nolako martxa ikusten diozu?**

□ Baztanen bat edo bertze hortara bilduak gara, baina oraindik indarririk ez du, hasiera bertzerik ez da. Hemengo nekazariendako ona izaiten ahal da, beti ere denominazioak eskatzen duen normatiba betetzen bada. Izan ere, presioneak badi-re... Haragi naturala eta arras ona produzitzen duten baserriak badira, baina berez ezin dira denominazio-nean sartu, aretzeak kanpoan sortuak baitira. Eta denominazioak eskatzen duen lehen gauza hori da, etxean edo zonan sortua izatea. Lehenik baldintza hori betetzen ez bada, denominazioak bere balio guztia galtzen du, alferrik dira analisiak eta kontrolak.

latzaileek aseguru baten bidez, aziendaak ekar eramate arriskuak eta ekitaldietako erantzunkizun zibila babes-tuko ditu. Gia emate eta al-baitaritza klinikoko zerbitzuak ere izanen dira.

ZERTAN DA PIRENAIKA ARRAZA ESKUALDEAN

Gaur egun Nafarroa osoan eta, zehazki, gure eskualdean dauden behi azienda bu-ruen %60a inguru pirenaika arrazakoak dira. Patxi Arangu-ren, antolaketa laguntzaile den Aspina erakunde-

ko teknikariaren hitzak dira. «Lehiaketa hauen helburu nagusia arraza promozio-natzea da, une honetan bizi duen momentua ikusi eta ur-tetik urtera izan dituen ho-bekuntzak erakutsi» dio. «Honetaz gain, -gaineratzen du Aranguren- en-kante ofi-ziala burutuko da, Minis-teritzak erosketak subentzio-natuko ditu eta honela sale-rosketak izatea espero dugu, abeltzaintzat besta eguna izatea». Kalitate haundiko aziendaak ikusiko dira, Aspi-

nako kideak dienez, abel-tzaindegi aukeratueta bu-ruak etorriko baitira. Nafa-rroako ipar aldean aurki dai-tezke, gehien bat, pirenaika arrazako aziendaak, Urbasa-tik Erronkarira lerro bat egi-nez, hortik goiti. Guztira 717 esplotazio daude Nafarroa osoan, 12.705 behietako ko-purua osatuz. Baztanaldean 104koa da esplotazio kopu-rua, 1.079 behiekin. Aspina bildutako esplotazioak ber-riz, 428 dira (9.561 behi zen-tsatuak).

Pirenaika eta blondaren arteko ezberdintasunaz solas-terakoan, «hori betiko pelea» dela aitortzen du Arangu-renek. «Pirenaika arraza ba-sagoa da, inguru menditsu honetan hobe laketzen due-na, esne gehixeago ematen du eta ama hobeak dira, jen-deari gustatzen zaio behi ama bezala. Blonda berriz, haun-diagoa da eta haragi gehia-go ematen du». Arraza man-tenzekotan errentagarritasu-na bilatu behar zaio, merka-tuan konpetitzeko gai izan dadin. Horretarako, kanpo-ko loditegietatik datozen haragietatik ezberdindu behar da. «Era tradizionalen eta kontu haundiz gizendu behar dira aziendaak, haragiaren ka-litatearengatik ezberdindu behar dira» Arangurenen erranetan.

‘NAFARROAKO ARETzea’ JATORRIZKO IZENDAPENA

Haragitako behi azien den sektorea indartzeko bertze ekimena ‘Nafarroako aretzea’ jatorrizko izendapenaren sor-tzea da. Aspina da ekimenaren bultzatzaileetako bat, nahiz eta beraiek Pirenaika arrazako aretzei zuzendutako izendapenaren aldekoak izan. Halere, Nafarroako Gobernuak ez zuen haragitako azien darik denominaziotik kanpo utzi nahi. Hasiera bertzerik ez bada ere, inguru honetan bada izendapenera bil-dutako abeltzainik. Esplotazioen kontrola egiten dute Aspina-koak, «sortzeak, pi-xa eta pentsuen kontrola». ■

Pirenaikak eta blondak: **Errentagarritasun bila**

Haragitako behietan bi arraza nagusi dira gaur egun gu-re inguruan: pirenaika eta blonda. Irailaren 24ko lehiaketa bertako arraza, pirenaika alegia, bultzatzen saiatuko da. Neurritz, blonda baino ttikiagoa da, nahiz eta esne gehiago eman. Blonda arrazakoak, ordea, haragi gehixeago ematen dute.

Nafarroan, arraza pirenaiko-ko behiak zaintzen duen el-karte bat bada, ASPINA ize-nekoa. Arraza ez desager-tzekotan merkatura begira errentabilitatea hobetzen saiatzen ari dira. Bertako ki-dea den Juan Martin Alema-nek ordea, zaila ikusten du: «Ni beti pirenaika zalea izan naiz, baina egia erran, erren-

tabilitatea bila-tzen baduzu, auni-tzez hobe da blonda ezartzea, borondate-aren kontra baldin ba-da ere. Pirenaika arraza nahiago izan arren, kapri-txotik ezin daiteke bizi, gaur egun». ■



GE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 6.100 ALE

GITARATZAILEA: TTPI-TTAPA KE
HERRIKO ETXEO PLAZA, 1
31780 BERA
TFNOA: 63 11 88
FAXA: 63 12 91

endaria: Joxemanuel Iri-
n. **Publizitatea:** Miren Kar-
e Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor
zena, Joxemanuel Irigoien.
ministrazioa: Amaia Goia.
edakzio taldea: Pello Ape-
lea, Juainas Paul, Kristina
an, Bittori Telletxea.
riemaileak: Joseba Azpiroz,
eban Arozena, Juana Mari
ar, Ainhoa Mutuberria, Iban
si, Txema Aldabe, Pello
egia, Txema Urroz, Patxi
andorena, Daniel Martirena,
el Maia, Josune Etxebeste,
olo Mendiburu, Joseba
abide, Alizia Olaizola, Margari
enike, Koro Irazoki, Mixel
endiain, Jacqueline, Elixabet
ria, Garbiñe Maiz, Oskar
perena, Alberto Sansiñena,
o Apezetxea, Aitor Arozena,
ina Boan. **Kolaboratzaileak:**
IE Nafarroa, Patxi Lasa, Mikel
unartea, Joxe Javier Etxe-
ia, Arantxa Zabala...
imategia: Gertu (Oñati).
-ttapak ez du bere gain har-
derrigorrez, aldizkarian adie-
rako erranen eta eritzien eran-
izunik.
kunde Laguntzaileak: Bera,
za, Goizueta, Areso, Baztan,
azubi, Zugarramurdi eta
ako udalak, Bortzirietako
kara Mankomunitatea,
errekako Zerbitzu Mankomu-
tea...



Idizkari honek Nafarroako
bernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEKO GAIA

Onddoak, gaztainak... norentzat dira?

Zezenari adarretatik heldu behar zaio



Javier ETXEBERRIA
Medikua. Goizueta

Ez zait iduritzen kanpotik dato-
zen sasi-fruitu-
biltzaileek kalte haundirik egi-
ten dutenik mendian, eta ez
nago hauen aurka. Gehiago
esango nuke, askotan besteen
erruak hauei leporatzen zaiz-
kiela. Kanpoko biltzaileei pa-
sabidea galerazteko neurriak
ez zaizkit gustatzen, gehien
batean, premiazko neurriak
ahaztuarazten dituztelako eta
arazoak aurrerantzean ere ber-
din irauten duelakoz.
Adibidez, pistetan kateak pa-
ratzeak, koto barrutiak sor-
tzeak eta erreketan arrantza
debekatzek, arbola pila le-
treroz estaltzeaz gain, gabaz
eta isilka dabiltzanei erreza-
sunak eta aukerak ematea da.
Nahikoa dugu azkeneko egu-
nean bazterrak nola gelditzen
diren ikustea. Motoak men-
dian mina egiten du, bai, bai-
nan askoz gehiago mendi gu-
zia zeharkatzen duen pistak,
eta pistetako putzulo guztien
ereditik dabilen kotxeak igel ha-
rrapatzaile guztiak baino igel
gehiago akatzen ditu. Zezenari
adarretatik heldu behar zaio
eta ingurugiro arazoei, gogo
biziaz eta ekintza jatorrez.

Nere idurikoz mendia denena da eta onddoak ere bai



Bautista MENTABERRI
Txoferra. Zugarramurdi

Nibetitik onddo
biltzailea izan
naiz, azkeneko
urte hauetan onddo aunitziki
ez dago eta egia erraiteko, hu-
natez da kanpoko jende gehie-
gi etortzen. Nere iduriz men-
dia denena da eta onddoak ere
bai, gainera herrikoek aban-
taila bat badugu, badakigu zein
diren leku hoberenak eta goi-
zean argitu orduko han ego-
ten ahal gara onddoak har-
tzeke prest. Egiaz pena eman-
garria izanen litaik ez herri-
koek eta ezta kanpokoek ere
onddoak ez biltzea eta hantxe
mendian usteltzea.
Kotoei buruzko kontu hori ez
zait sobera ongi iduritzen, gu
mendian kotoak jartzen has-
ten bagara, bihar beharbada
hondartzetan hasiko dira, etzi
bertze leku batean eta horrela
kate luze bat osatu... azkene-
an etxeko atarian bakarrik ego-
ten ahalko ginen.

Pilaka hartu eta gero saltzea negozioa egiteko, hori...



Antonio GERRA
Jubilatua. Igantzi

Denbora bate-
an, bai, denbo-
ra batean on-
ddo azkarki ateratzen zen.
Bertzelakoan, gaur egun
onddo guti ateratzen da
Igantzi alde honetan, arbola
ere guttiago da eta. Aurten
pare bat edo hartu ditut, bai-
nan, gutti ibili naiz. Orain ar-
te idor xamar joan da eta be-
harbada, egin duen uri pixar
honekin, hemendik aitzinera
ateriko dira pixar batzuk,
akaso.
Nire ustez mendia denena
da, ez? Gero, kotoen kontu
hori, nik ez dakit. Segun no-
la ikusi nahi den. Horrek bi
alde ditu. Dena den, abuso-
ak izatea ez da ona, ez.
Onddoak pilaka hartzea eta
gero saltzea negozioa egite-
ko... hori gaizki harrartzen
dut. Eta onddoekin bezala,
gauza bera gatzainekin ere.
Dena den, gatzainak ere ba-
jatuak dira. Gatzainondo au-
nitz bota eta pinuak paratu
dituzte, oseake...

AYLA ARGAZKINTZA



Bixente Taberna
Legia karrika n° 4
BERA © 630597





Herri ttikiak (Eratsun)

Miguel MINDEGIA

Eratsungoa, 66 urte
Neurria: Zortziko haundia

Gure herri txiki zoragarri hau
nik zenbat maitatzen dedan
mingainez ezin nezake esan
bihotzak nahi duen eran
kanpoaldeko txori guztiak
honuntza datozkio hegan
hau baino leku politagorik
Nafarroak ez du beregan.

Kanpotar askok ere aitortu
dute hainbeste biderez
bizi izateko politagorik
bilatzen ez dela errez
behar bezala osatua da
mendiez eta arbolez
pena dugu maiorezgo asko
daudela ezkondu gabez.

Bortzirietako Euskara Mankomunitateaz

Maiatzaren 28ko hautes-
kundeen ondotik, udalbat-
zak osatu direnean eta zi-
negotzi bakoitzak bere kar-
gua hartu ondoren, bete be-
harreko komisioak eratu di-
ra Berako udaletxean. Ba-
natzekoak ziren 19 komi-
sioetatik, bakar bat geratu
da ordezkariarik gabe: Bort-
zirietako Euskara Man-
komunitatea.

Herri Batasunatik uste da
Mankomunitatea tresna
egokia dela euskararen nor-
malizaziorako, batez ere,
osatzen duten udalek zint-
zotasunez jokatzeko badu-
te eta bere garaian Man-
komunitateari emandako
ahalmen juridikoa errespet-
tatzen baldin bada. Bere
sorreratik, Berako udalak
trabak baino ez dizkio jarri
Mankomunitateari bere ga-
rapen autonomorako, ber-
tan erabakitakoa gero a-
tzera botaz. Berako udala
osatzen duten talde guz-
tien ardura izan beharko lu-
ke Mankomunitatearen hel-
buru eta izakera juridikoaz
jabetzea eta bereziki uda-
lean gehiengoa duen tal-
dearena. Zorritarrez, uda-
lak ordezkaturia egon behar
duen bertzeko organoetan ez
bezala, Euskara Mankomu-

nitatetik paso egin du, argi
utiz zein den euskarareki-
ko bere jokabidea. Honen
guztiaren aitzinean, Berako
HBK proposatzen du:
Berako udalak Bortzirietako
Euskara Mankomunitatean
izan behar dituen bi orde-
zkarietatik bat alderdi hone-
tako zinegotzia izatea, bal-
din eta ziurtatzen bada
Mankomunitateak hartzen
dituen erabakiak Berako
Udalak errespetatu eta be-
te egingo dituela. Aldi bere-
an, HBK, euskaltzale guz-
tiek deia luzatzen die Berako
Euskara Batzordean parte
har dezaten, euskararen
normalizaziorako ezinber-
tzekoa baita guztion par-
taidetza hori.

BERAKO HERRI BATASUNA

Bai soldaduskari

Gure herri paketsu eta la-
saia, egun batean Gazte-
lako Erreinuaren menpean
erori zen, eta armaz hartu
zuten Nafarroako Erreina
(espainolisten historia bert-
zelako anexo batetaz hitz
egin arren). Geroztik
Espainiako ejerzitioak mili-
tarki okupatu du gure he-
rria. Espainiako buruzagiak
(errege, diktadore, militar,
sasipolitikoak), beti egoe-
ra honen bultzatzaile intere-
satuak izan dira. Orain ere

ejerzitioa eta FOP direlako-
ek paper errepresiboa bete-
tzen jarraitzen dute, Esta-
tuaren lege espainolak bor-
txan beteazten eta honen
batasun faltua indarrez in-
posatzen. Espainiar ejer-
zitioa eta Estatuko legedia
elkarria sostengua ematen
diote. Lege kontuetan adi-
tu izan gabe edozeinek ikus
dezakeen gauza. Politikoek
lau haizetarat pakeaz min-
tzatzen diren bitartean eu-
ren boterea ejerzitioaren in-
darrean oinarritzen dutela-
koz. Eta honekin nahiko ez
duten gu deitzen gaituzte
ejerzitio honen parte iza-
teko. Horregatik euskaldun
gazteak soldaduska eginez
nazionalismo espainola ser-
bitu behar dugu. Gure He-
rriaren eskubide naturalak
ukatzen dutenei plazer
emateko. Eta sasi-demokra-
zia honetan Euskal Herria-
ren interesen aurka gehien
lan egin dutenen autorida-
dea onartzeko eta euren
menpe egoteko. Hala be-
di. Et in secula seculorum.
Oharra: Normalean begi-
bistakoak ez du azalpenik
behar baina, ikusi nahi ez
dutenei gogorazteko na-
hia sentitzen nuen. Alferrik
agian. Barkaidazue atre-
bentzia.

OSKAR GOÑI PETRIRENA
MARTUTENEN, 1995-VIII-30



LESKA

koxkonta

Ezkontza,
bataio eta
bileretarako
leku egokia

Deitu
erreserbak
egiteko
.....

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • **LESKA**

**ZIZKA
OSTATUA**

Martxa eta
mozkor saltsa
Altzate 28 • **BERA**



Nafarkaria 95-IX-15

«Mutilei ttiki-ttikitatik ematen zaie baloia. Neskei, berriz, panpinak. Gu ere futboleant betidanik ibili izan bagina, mutilekiko diferentziak urriagoak lirateke.».

Estitxu **FERNANDEZ**
Gure Txokoako jokalaria
Nafarkaria 95-IX-15


«Ezin da gizonen era berean planteamendurik egin. Goxotasuna eskaini behar zaie.».

Joxeluis **ALTZUGARAI**
Gure Txokoako entrenatzaile.
Nafarkaria 95-IX-15

«Futbol zelaiaren egoera penagarria da. Kanpoko talderen bateko jendea etorri zaigu protestan, baldintza horietan ez zutela jokatu erranez, eta guttieneko neurriak ere ez dituela betetzen erranen nuke».

Jose Emilio **DEL RIO**
Beti Gazteko lehendakaria
Diario de Noticias 95-IX-15

- ♦ **Ikasi ala lan egin?**
- ♦ Lehenik ikasi gero lan egiteko.
- ♦ **Gogokoa duzun lan bat?**
- ♦ Turismo ikasten dudanez, gidari turistikoa.
- ♦ **Iruñean pisan ala ikasle erresidentzian?**
- ♦ Dudarik gabe, lagun arteko pisan.
- ♦ **Minifalda ala gona luzea?**
- ♦ Galtza bakeroekin gustorago.
- ♦ **Zuk mutilei ligatu ala mutilek zuri?**
- ♦ Gogoko ditudan mutilei nik ligatu.
- ♦ **Mutil beltzaranak ala rubioak?**
- ♦ Berdin zait, majua eta ipurdi on batekin nahikoa dut.
- ♦ **Ezkonduta ala neskazar gelditu?**
- ♦ Lehenik mutilarekin bizi eta, beharbada, ezkonduta.
- ♦ **Edateko, kaña ala zurito?**
- ♦ Kalimotxo katxia gehiago gustatzen zait.
- ♦ **Zure azken besta 'mundiala'?**
- ♦ Besta aunitz, azkena Oiatzunen.
- ♦ **Gehien gustatu zaizkizun filmeak?**
- ♦ 'Ghost' eta 'Jamón, jamón'.
- ♦ **Gustokoa duzun kirol bat?**
- ♦ Tenisa eta futbola, baina telebistan ikusteko.



Patri RIPA

Turismo ikasten ari da
Iruñeko. 20 urte

OKAVE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA



ZALAIN
JATETXEA

EGUNEKO MENUA ETA KARTA

Zalain Auzoa

63 09 67

BERA

Boda eta banketeak ematen dira

PIKABEA
platerak

Lehen Molinero
izandakoak

**Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio
arazoak moldatuko dizkizugu**

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • 630240 - 631495 • **BERA**

E D A R I A K



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)

Tel. - Fax: 948. 63 10 21



Ikasturte berriak nobedadeak ekarri ditu

Plangintza berria indarrean sartu denez, ikastetxeen eskaintzak egokitu egin dira

KRISTINA BOAN

Plangintza berria dela eta, orain arte OHO-EGB zenekoa desagertu egin da eta ikasturte honetan, izen eta eduki berriak dituen sistema estreina-tu da Nafarroan. Bera-ko ikastetxeei dago-kionez, berrikuntza hauek zenbait aldake-ta ekarri dute. Jesusen Bihotza Ikastetxean eta Rikardo Baroja Es-kolan, orain arte OHO-EGB osoa ematen zu-ten (14 urteak arte), eta hemendik aitzinera Lehen Hezkuntza dei-tzen dena emanen du-te (12 urteak artekoa). Labiaga Ikastolari da-gokionez, 16 urteak ar-teko DBH (Derrigo-rrezko Bigarren Hez-kuntza) emateko bai-mena lortzeko asmoa-rekin, 'Kontentzioso asministratiboa' mar-txan du Hezkuntza De-partamentuarekin, eta hori argitu bitartean, eta gurasoak horrela erabakita, DBHko bi



Toki Ona Institutuan ikasgela berriak estreinatuko dituzte aurten

Karmele

kurtsoak ematen ha-siak dira Bera eta Lesakako 54 ikaslere-kin. Azkenik, Toki Ona Institutua da DBH osoa emanen duen Bortzirietako ikaste-txe publiko bakarra. Aurten 2 kurtsoen ar-tean 127 ikasle dituz-te, 44 euskarazko tal-deetan eta 83 erda-razkoetan. Honetaz aparte, IEE-REM, Moduloak eta Batxi-lergoak ere badituzte.

Idortearengatik ur eskasia

Ur-mozketak izan dira egun batzuetan eta ur-sare publikoko ura-rekin kotxeak garbitzea eta baratzeak urezta-tzea galerazia zen.

URAREN KUOTAK

Ur-ordainketak ez dira ordenantzen ara-bera egin orain arte, eta hirugarren hiruhilabe-te honetan, kuota fin-koa izanen da, etxee-

tan 611 ptakoa eta in-dustrietan 1.288 pta-koa. Kontsumitzen den metro kubiko bakoit-zeko 41 pta ordaindu beharko dira etxeetan eta 49 industrietan. Azkenik, etxeetako saneamenduagatik 24 pta pagatu beharko di-ra metro kubikoko eta 30 pta industrietan.

Horreri %7ko BEZa gehitu beharko zaio.

ttipi-flash

Alkoholiko Anonimoak

elkarteak urteroko bilera egingen du Kultur Etxean irai-laren 23an, arra-tsaldeko 8etan.

Oihanberritza

Uslaka aldean 34,4 Hektarea oihanbe-rritzeko 18 milioi pezeta hartuko ditu udalak Nafarroako Gobernutik.

Mendi bizikleta

munduko txapelke-tan daude Juan Car-los Garro eta Miri-am Blas beratarrak, Alemaniako Kirch-zarten hirian.

Euskaltegian

matrikulatzeko epea irailaren 29a arte za-balik dago. Informazioa 637796 eta 631105 tfnoetan.

Polikiroldegian

kirol zerbitzu be-riak eskainiko dira urriaren 2tik aitzine-ra. Izen emateko epea zabalik da irai-laren 18tik aitzine-ra polikiroldegian.

Nafarroa Oinez

Urtebetetzea gogo-ratuz, bi ordu t'erdi-ko bideoa enkargatzen ahal da Ra-dio Bidasoa dendan.



ANSONEA
JATETXEA

Kontsultatu menu bereziak

Foruen Plaza 1, Tfnoa: 630072 • BERA

LOZOTEGI-JAIONE



Itzea 3 • 630786 • BERA

BOTXO
ostatua

Tfnoa: 63 00 52
Zalain Auzoa, BERA

GRUPO



ZURICH

ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — ☎ 63 07 63

Lesaka

Zenbait kultur ekitaldi ospatuko dira egunotan Matxinbeltzenean

Larunbatean Ametsgaizto taldearen kontzertua eta 28an 'Euskal komunikabideak Nafarroan' mahaingurua

AITOR AROZENA

'Jo hordago euskal kulturaren alde' izenburupean zenbait kulturekitaldi antolatu ditu Bortzirietako euskaltegiak (IKA).

Ortziralean, irailak 22, Berako Kultur Etxean bertso musikatuaren emanaldia izanen da gaueko 10,30etan Sarasua anaien eskutik. Lesakako ekitaldiei dagokienez, larunbatean, arratsko 11etan, *Ametsgaizto* taldearen kontzertua izanen da 11etatik aitzinera Kattun. Datorren ortzegunean, irailak 28, *Euskal komunikabideak Nafarroan* izeneko mahaingurua burutuko da arratsaldeko 8etan. Alberto Barandiaran (Nafarkaria), Joxemmanuel Irigoien (tti-pi-ttapa), Joseba Igarabide (Xorroxin) eta Kike Diez de Ulzurrun (Euskal Herria Irratia) izanen dira hizlariak eta Pello Apeztexea moderatzailea.



Jone Elgorriaga eta Iزارo Ansa osatutako trikitilari bikotea fuerte dabil azken hilabeteotan. Nafarroako finalean laugarren gelditu ondotik, bigarrenetik puntu batera, Zeanurin eta Donostiako bi txapelketetan parte hartu dute, horietako batean txapeldun geldituz. Beraien helburua inguruko herrietan ezagutzera ematea da. Ospakizun baterako nahi badituzu 637907 telefonora deitu.

Euskal Jaia ospatu da igande honetan

Igande honetan burutu da Tantarumairu ikastolak antolatutako Euskal Jaia.

Txistulariek eskainitako dianarekin hasi zen eguna. Ikastolako eta Irain dantza taldearekin batera Lasarteko Erketz, Am

urrioko Aresketa eta Faltzesko Makaia dantza taldeek parte hartu zuten, guztira ehun neska-mutiko baino gehiago elkartuz. Goizez karrikaz karrika aritu ziren eta arratsaldez herriko plazan eskaini zuten be

raien emanaldia, herrikoak Zubigainekoa dantzatu ondotik. Arrats partean Tantarumairu txaranga aritu zen giroa paratzen eta egun osoan erakusketazabalik izan zen Herriko Etxeko areto nagusian.

tti-pi-flash

Beti Gaztek

etxean jokatzeko dituen partiduetara bazkide txartela eramatea nahitaezkoa izanen dela adierazi du zuzendaritza batzordeak.

Pagolletan

herri lurretan 7,9 hektarea landatzeko 5,7 milioi pezetako dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuak.

Yoga ikastaroa

Yoga ikastaroan izena eman nahi duenak 637080ra deitu. Klaseak urrian hasiko dira.

EPA ikastaroak

Izena emateko epea hilaren 22an akabatuko da Herriko Etxean.

Euskaltegia

matrikulatzeko epea irailaren 29a arte zabalik dago. Informazioa 637796 eta 631105 tfnoetan.

EROSLE

LESACA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

Frexkuena
zugandik
hurbilago

Bittiria, 67 - ☎ 637264

BEREAU

Jatetxea • Hotel

Lesakako Bidegurutzean
Tfnoa: 63 73 82 - LESACA



J. RAMOS

Zolak akutxilatu eta
barnizatzen dittut

☎ 631342 BERA • ☎ 637172 LESACA



IRU BIDE
ERRETEGIA

Tfnoa: 637127
LESACA

XATURETXEA



Tfnoa: 63 70 27 LESACA

Etxalar

Ehiza postuen subastan gehienek goiti egin dute

4.700.000 pezeta gainditu dira denetara

PELLO ETA ALBERTO

Bi milioi pezetatan ateretako 22 ehiza postuetatik 13k tasako neurriak hautsi dituzte, eta 'parapeto' izeneko gertatu da nagusi, beti bezala: 247.000 pezetatik 1.247.000ra joan da, milioi bat gehiago, justu. Hamargarren postuak ere 137.500etik 587.500ra egin du jauzi, tasatu halako laura. Postu hartzaileetatik bi irundarrak dira, bi beratarrak, bi urdazubiarrak, bi donostiarrak, bi zauraztarrak; bat, berri, Oiartzun, Errenteri, Hondarribia, Lezo eta Behobikoa. Etxalartarrak bi hartu dituzte, ehizturi elkarteak lehendik dituen biez gain.



Apeztegi edo Artxentxe aldetiko elizarako bidean, galtzada zaharra dena jaso eta erabat berritu dute, harriak ere ia denak berriak paratuz. Ilusioak eta borondateak egiten dituen lanak!

Landagain eskolan aldaketak

5-6. ikasturtekoentzako irakaslea Marian Rodriguez izanen da aurten, lehen ere Etxa-

larren aritua. Eskolaurrekoekin Nekane bakarrik ariko da, xehetu gabeko laguntza puntualen bat izaten ahal badu ere. Kontxexi eta Enkarna barne, egune-

ro eskolan lau ariko dira, iaz baino bat gutiago. Marta eta Juanjok, musika eta soinketa-
ren arduradunek, lehengo ordu berdinak sartuko dituzte.

Larraburuako ibilaldia

Abuztuaren 25ean Urbasa aldera jo zuten 74 lagunek, Larraburu Elkartearen eskutik. Iratxen bazkaldu ondotik, Lizarrako hainbat leku ikusteko aukera izan zuten.

Bertizkoan aziendan sartzeko debekua

Maiz sartzen omen dira aziendak Bertizko oihanean eta kalteak eragin. Hori dela eta, Nafarroako Gobernuak Udalari idatzi dio,azienda eremu horretatik lehenbaitlehen ateratzeko herritarrei jakinarazi diezaiei. Gainerakoan, Gobernuak berak hartuko omen ditu neurriak.

Deñe

LENTZERIA
MERTZERIA

Tfnoa.: 62 75 14

Beheko Plaza 8, LESAKA



24 ORDUKO BUS ZERBITZUA

- 17 jarlekuko mikrobusa
- 55 jarlekuko autobusa
- Afari, despedida, sagardotegietara joateko

☎ (943) 300139 • 908.671469 • ANDOAIN



☎ 627542

bitxikeriak • opariak • eskulangintza

ESTHER ATEAK, C.B.

Zarandia 9,

☎ 627584 - LESAKA

☎ (943) 610319 - IRUN

- ➔ Parket flotantea
- ➔ Tarima
- ➔ Kortxoak
- ➔ Ate korrederoak dituzten armarioak
- ➔ Paretan sartzeko armarioak



© 635290
ETXALAR

HERRIKO OSTATUA

Jatetxea

*Lagun artean
gora-gora egoteko
leku egokia*

Igantzi

Herri gosari batekin hasiko dira aurtengo Sanmigelak

Igande goizeko 8etan betizuak aterako dira eta arratsaldez Artzai zakur lehiaketa burutuko da

OSKAR TXOPERENA

Aurtengo Sanmigelak datorren ortzeguneko herri gosariarekin hasiko dira eta lau egun bertzerik izanen ez badira ere zenbait berrikuntza somatuko dira egitarauan.

Irailak 28, ortzeguna

Goizeko 9,30etan Herri gosaria Ziobi mendian. **10etan** plater tiraketa. **12etan** txupinazoa botako da Herriko Etxetik, bes-ten hasiera adieraziz. **12,30etan** jota txapelketa. **4etan** betizuak. **7etan** buruhaundi eta erraldoiak. **12etan** dantzaldia IZOTZ taldearekin.

Irailak 29, ortzirala

11etan Meza Nagusia Igantziko Abesbatzak kantatua.



Urteroko zikiro-jate eta koadrilen bazkari eta afariekin konforme ez eta herri gosari batekin hasiko dira urten herriko bestak Argazkia:

12etan herriko dantza taldearen saioa. **5etan** herri kirolak: Sokatira Igantzi eta Legasa artean; arpana eta motozerrarekin desafioa Kañamares anaiei es-

kutik; Patxi Larretxea txingak eta 100 kiloko harriarekin. **7etan** buruhaundi eta erraldoiak. Arratsalde eta gauzez dantzaldia URRATS taldearekin.

Irailak 30, larunbata
10etan lera-txakur-
rrak. **12etan** pilota par-
tidoak.

2etan zikiro jatea Xebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertso-

lariekin. **6etan** betizuak. **8,30etan** Zizkuitz txaranga. **12etan** dantzaldia URRATS taldearekin.

ARTZAI ZAKUR LEHIAKETA IGANDEAN

Urriak 1, igandea

Egun guzian zehar haurrentzat jokoak, gaztelu haizatuak... **Goizeko 8etan** betizuak. **11etan** herri laisterketa. **4etan** XVI. Artzai Txakur lehiaketa. **7etan** bertso saioa Jon Maia, Manolo Arozena, Mikel Mendizabal, Jokin Sorozabal eta Maialen Lujanbio bertsolarien eskutik. Arratsalde eta gauzez dantzaldia izanen da IZOTZ taldearekin, aurtengoz beste akabera emanaz.



JATETXEA

LA VILLA

**Besta zoriontsuak
opa dizkizuegu**

Tfnoa: 63 72 90
IGANTZI

BI - BIDE

ostatu-janaridenda

**BESTA ALAITSUAK
OPA DIZKIZUEGU**

Tfnoa: 63 72 78
IGANTZI

SEBERIANO TXOPERENA



Oilasko eta oilanda salmenta

Tfnoa: 637784 • IGANTZI



ttipi-ttapa

Ongi pasa herriko bestetan



Betizuak, aurtengoan baita igande goizeko 8etan ere, herri kirolak, txistulariak, dantzariak eta argazkietan ageri ez diren bertze hainbat ekitaldiekin goxatzeko aukera polita izanen da aurtengo Sanmigeletan.

Arg.: Oskar



ATMS.A.



- Txapa mozketak eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Garraio zintak eta mahaia.
- Mantenu rodilloak.

Igantzik Bentak • ☎ 63 74 11



CONSTRUCCIONES MECANICAS
BERRIZTAUN S.L.

Eraikuntza eta moldaketak
Despiezea eta makinaria
Mekanika mantenimendua

Igantzik Bentak • ☎ 627572 • Faxe: 637313



Zalain Auzoa • ☎ 631157 • **BERA**

ZALAIN MOTOR

FORD ZERBITZU OFIZIALA

- Erakusketa eta Salmenta
- Bigarren eskuko autoetan aukera zabala eta garantia osoarekin
- Mekanika • Karrozeria • Elektrizitatea
- GRUA ZERBITZUA 24 ordutan



Ikasturte berria hasi dute herriko neska-mutikoeak

Hamabi eta hamalau urte artekoek herrian segitzen ahal dute beraien ikasketekin

GARBIÑE ETA ELIXABET

Irailaren 11n Arantzako hurrek kurtsu berria hasi zuten. Erreforma dela, eta, Bera eta Lesakako 12 eta 16 urte arteko neska-mutikoei Berako institutura joan behar dute. Arantzakoek berriz bertan ikasteko aukera izanen dute 14 urteak arte. Aurtengo ikasturtean sei maisu izanen dira, berriak Rosa Eugi, sei eta zazpi urtekoekin eta Andone Briongos, hamahiru eta hamalau urtekoekin. Iaz bezala Enma Sanzberro Igantzi eta Arantzako hurrekin egonen da. Jantokian 48 hurrek bazkalduko dute eta aurtun ere sukaldaria Sagarrio izanen da.



Orain lau urte eskolako neska-mutikoei ateratako argazkia

Artxiboa

Kanpaldia

Jubilatuaren gimnasia taldeak urriaren 3tik 7ra kanpaldia antolatu du. Zarautzera joanen dira eta azkeneko egunean Donostiako Aquarium-a ikusiko

dute eta Londres hotelan bazkaldu. Arratsalde zainera joanen dira.

Kirol jaialdia

Irailaren 23an kirol jaialdia izanen da Ekaitza elkarteak an-

tolatua. Arratsaldeko 5etan patinaia eta txirrindula erakusketa, gero herri kirolak (proba konbinatuak) eta bukatzeko pilota partidoa: Jon eta Aitor Agesta (iazko txapel-

dunak), Patxi Ordoki eta Tomas Telletxea, aurtengo txapeladunaren kontra. Haur guztiei txokoltia emanen zaie Ekaitza elkartearen eta haundiagoei afaria izanen dute leku berean.

ttipi-flash

Landatzeko dirulaguntza

Ametxoko eta Apita inguruetako herri lurretan 23,5 hektarea oihanberritzeko 15,8 milioi pezeta-ko dirulaguntzaz hartu du udalak Nafarroako Gobernutik.

Arkupeak

elkarteak antolatutako mus txapelketaren finala irailaren 6an ospatu zen Donezteben. Bertan, Bonifacio Oskoz eta Juan Larretxea herritar-rrak suertatu ziren txapeldun, bortz ordu luzez musean aritu eta gero.

ANTZUZELA S.L.

Irungo errepeidea - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximinia
Angeluak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leioak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrakziak
Wileak	

'Abujardadoa' - Mazona
'Zahar antzekoa' - Txapintza

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK

ALBERGEA JATETXEA

© 634179
ARANTZA

ATERPE
ALBERGEA

LABE ZAR

© 631076 • BERA

SAROB

okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

BEKO ERROIA

Lore eta landareak

Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESACA

AMEZTIA

Jatetxea - Hostala

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan

Tfnoa: 450028 • **DONEZTEBE**

ttipi-ttapa

6.100 harpidedun
21.000 irakurle

Sunbilla

Karrika Nagusiko lanak hiruzpalau hilabete iraunen dute

Bertzalde, helikoptero baten beharra izan zen duela bi aste gertatutako sutea itzaltzeko

IXABEL ETA JOSUNE

Karrika Nagusiko saneamendu lanak hasiak dira. Orain dela aste pare bat hasi ziren karrika altxatzen, mar-txa ederrean gainera. Arazoak ere gertatu zi-ren, ordea, azpialdean zenbait lekutan lega-rra ater baitzen. On-dorioz, leku horietan berriz ere gehiago ba-jatu behar izan zuten, 1,70 metro bitarte. Lan hau, eguraldiak lagun-tzen badu ez da deus, baina azken egunot-an euria dugunez, ez da izaten inguru hor-tan ibiltzerik, lohia de-la eta. Dena den, ba-dakigu gero ongi ego-teko aguantatu behar dugula. Herriko Gaz-mendi eraikuntzak ari da lanak egiten eta lan-



Herriko Gazmendi eraikuntzak ari dira saneamendu lanak egiten. Bertzalde, helikoptero baten beharra izan zen duela bi aste gertatutako sutea itzaltzeko

gileek diotenez, hiruz-palau hilabete iraunen dute lanek.

Sutea

Orain bi aste, men-dia garbitzen ari zire-la makina batek sua

hartu ondoren, men-diak sua hartu zuen. Lau ordur egon behar izan zuten sua itzal-tzeko, eta beharrik Iruñetik helikoptero bat etorri zela, uhal-

detik ura hartuz itzal-tzea lortu baitzuten. Bidai bakoitzean 400 ur litro eramaten omen zituen. Mendiarek zen garrantzizko deus ger-tatu.

EPA ikasteroak

Urtero bezala anto-latu dira EPA ikastaro-ak. Parte hartu nahi duenak, irailaren 22ra-ko Herriko Etxean ize-na eman behar du

BELARRA Kafetegia

Plater Konbinatuak

Amezti 3, Tf. 45 03 06 • DONEZTEBE



**SANTAMARIA
Jatetxea**

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



**Moble
berriak
erakusketan**



**TELLETXEA
MOBLEAK**

Moble modelo berriak
Burdin eta zura konbinazioak

Rosa Seminario z/g • 45 02 58 • DONEZTEBE

Malerreka

Iturengo Joaldunen Eguna irailaren 23an ospatuko da

Nazabal eta Olasagastiren arteko aizkol apostua burutuko da eguerdiko 1,30etan

IBAN ISASI

Aitzineko alean bertzerik jartzen bagenuen ere, azken orduko aldaketa baten ondorioz Joaldunen Eguna hilaren 23an ospatuko da. Dena dela, eta orain egitaraua finkatuta dagoela, aurrekoan aipatu gabe utzitako zenbait datu aipatuko ditugu. Aizkol apostua, eguerdiko 1,30etan izanen da eta Nazabal eta Olasagastiren artean. Orioko trikitilariak, Jokin eta Azkonabeitia izanen dira. Erran gabe ezin utzi, Jarauta txaranga-koek ezin izanen dutela agertu.

Udal komisioren banaketa

Zinegotzi bana edukiko du komisioko bakoitzak, udaletik adituzera eman dutenez. Hirigintza eta gainerrako komisioretan, Jose M^a Iparagirre alkatea; mendi, ingurugiro eta osasun sailetan, Pedro



Joaldunek beraien eguna ospatuko dute larunbatean

Artxiboa

Euskara ikasle eta turistei adio

Udarekin batera joan dira uda giro berezia sortzen duten turista eta euskara ikasleak. Iturenen AEKk antolatzen ditu barne-tegiak eta hainbat gazte pasatu dira bertatik. Hasieran zenbait arazo izan zituzten dutxeekin, gero moldatu ziren. Turistak berri, hortarako prestatuak dauden etxetara hurbildu dira.

M^a Aizkorbe; Kultura eta zerbitzu mank., M^a Jose Bereau eta Periko Mindegia; Hezkuntza; M^a Trinidad Erasun eta obren arduraduna, Jose Angel Aioroa.

Eskola hasi da

52 haur hasi dira Iturenen OHO burutzen 6. mailara arte. Aurten izena eman dutenak 11 izan dira, hauetatik 2 zubietarrak. Donezteben hiru haur hasi dira.

Carlos Mindegia oitztarrak irabazi du Malerrekako III. Gazta lehiaketa

Carlos Mindegia oitztarrak irabazi zuen irailaren 10ean Oitzen bertan burututako Malerrekako III. Gazta Lehiaketa. Jose M^a Etxart legasarrak puntu berdina lortu zuten eta Donamariako Miguel M^a Amigorenak puntu bat guttiago. Halere, lehiaketa honek etxeko gaztak

bultzatu nahi dituen eta hiru lehenak gaitandegiak zirenez, bertze sailkapen bat egin zen. Irabazlea, Carlos Mindegia izan zen, bigarren postua Oituko Patxiku Lizasoainek eskuratu zuen, hirugarrena Gazteluko Miguel Sarrateak, laugarrena Urrotzko M^a Jesus Mariezkurren

eta bortzgarrena Legasako Jose M^a Etxart.

Guztira, 12 gazte gilek parte hartu zuten proba honetan eta epaimahaia Jose Antonio Otxandorena (Idiazabal Jatorrizko Izendapena), Imanol Luzuriaga (Donamariako Benta) eta Joakin Ilarregi herritarrak osatu zuten.

ttipi-ttapa

6.100 harpidedun
21.000 irakurle

Angie
ENGLISH ACADEMY
Elizagibela 7, beheo • ☎ 45 01 02
DONEZTEBE

FUNERARIA ZERBITZUAK DNEZTEBEn



MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA • MERTZERIA

Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 • DONEZTEBE

Argitaratzailea: Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Arantzako Herriko Etxea, 31790 Arantzeta, Tfnoa: 634125
Montajea eta Maketazioa: ttipi-ttpa


Mankomunidadeko Batzorde Erabakiorra

oraindik osatu gabe

Udal hauteskundeak iada urruti gelditu bazaizkigu ere, Euskara Mankomunitatean hurrengo lau urteetan izanen ditugun ordezkari batzuk oraindik hautatu gabe daude, uda guzia pasa den arren. Oñangoz batzordea honako hauek osatzen dute: lehendakaria Joxe Ramon Amoros, Arantzako alkatea izanen da, Etxalarko ordezkaria Imanol Iturria zinegotzia izanen da, Igantzikoa Mikel Retegi, Lesakakoak Jose Luis Etxegarai eta Juan Fermin Mitxelena eta Berakoa, berriz, Imanol Larrañaga. Beraz, azken ordezkaria hautatu gabe dago, Berako Herriko Etxeak oraindik ez baitu bigarren zinegotzia hautatu.

◆ Euskara familian

Nafarroako bertze zenbait Euskara Zerbitzuren batera, Bortzirietako Euskara Zerbitzuak familian euskararen erabilera indartzeko kanpainari ekin dio. Kanpaina honen helburuetako bat familietan hizkuntza nagusia euskara izan dadin lortzea da. Izan ere, inguru honetan guraso gehienak beren seme-alabekin euskaraz aritzen badira ere, aunitzetan ikusten baitugu gurasoak elkarren artean erdaraz aritzen direla. Bertalde, guraso hauei beren



euskara maila hobetzeko ikastaro bereziak eskeiniko zaizkie, hau da, ikastaro llibur eta praktikoak. Urtero bezala, langabezian dauden gurasoei Nafar Gobernuak matrikularen % 50a ordainduko die.

◆ Batzar Orokorra

Joan den maiatzaren Sean Berako Herriko Etxean Euskara Mankomunitadeak Batzar Orokorra egin zuen. Bertan Mankomunitadeak dituen batzorde ezberdinetako 20 bat lagun bildu ginen. Eztabaidatu zen gaia Mankomunitatearen funtzionamendua izan zen. Denen ustez, Euskara Batzordeek bi arazo nagusi dituzte. Batetik, moteltze prozesu bat gertatu da batez ere

jendearen parte hartze aldetik. Bertzetik, batzorde hauek teknikariari lotuegiak daudela ikusten zen. Horregatik, mugimendua indartzeko beharra dagoela erran zen eta aldaketarik nagusiena batzordeetako partaideek paper aktiboagoa joka dezaten eta eginkizun konkretuak eduki ditzaten lortzea izanen da. Halere, herri bakoitzean Euskara Batzordeek dinamika ezberdina dutela ikusirik, mugimendua indartzeko batzorde bakoitzak bere baliabideak zein izaten ahal diren azter dezan egokiagotzat jo zen.

◆ Euskararen erabile

ra Herriko Etxeetan

Azkeneko urteotan Bor-

tzirietako Herriko Etxeetan zenbait pausu eman dira euskararen erabilerrari dagokionez: bertako langileak urtero euskara ikastaroetara joaten dira, idatziz euskara erabiltzen hasi da... Halere, ezin erran oraindik Herriko Etxeetan euskararen erabilpena ziurtatua dagoenik. Horregatik, pausu bat gehiago emateko asmoarekin, Aholkularitza Batzordeak zenbait proposamen egin zizkion Batzorde Erabakiorrari, epe laburrean Bortzirietako Herriko Etxeetan maila guzietan elebitasuna ziurtatua egon dadin. Proposamen hauek onartu egin zituen Batzorde Erabakiorrak maiatzaren 18an egin-dako bileran.

◆ Udal langileen euskalduntzea

Urtero bezala, Bortzirietako udal langileek euren euskara maila hobetzeko aukera izanen dute. 95-96 ikasturtean Bortzirietako 14 udal langilek parte hartuko dute ikastaro hauetan: seik hobetze ikastaroa egingen dute, hiru alfabetatzen ariko dira, bertze hiruk 4. Hizkuntz Eskakizuna eskuratzeko ikastaroa egingen dute, batek UEUko 'Laneko Euskara' ikastaroa egingen du eta bertzeak 3. urratsa egingen du, azkenik.

Berriak

Jose Ramon Amoros: «Euskari dagokionez pozik egoteko arrazoiak baditugu ere, gehiena egiteko dago»

Jose Ramon Amoros izanen dugu hurrengo lau urteetan Euskara Mankomunitateko lehendakari, bera baita Arantzako alkate berria, “Arantzaren Alde” taldearekin batera azkeneko udal hauteskundeetan boto gehien atera ondoren. Arantzar honek 36 urte ditu eta bertako eskolan irakaslea da.



Orain arte eta kanpotik begiratu-ta, nola ikusi duzu Mankomunitatea eta aitzinera eraman dituen ekintzak eta egitasmoak?

Lehenik eta behin herritar arruntak Mankomunitatea zer den ezagutzen duenik zalantzan jarriko nuke. Hau da, Mankomunitateak bere ekintzak burutzen ditu –Matrikulazio kanpainak, kultur ekitaldiak...– eta herritarrek badute horren berri baina ho-

rreren gibeletik zer dagoen ez dakite. Kanpotik sei urteotako balorazioa egin beharko bagenu, Mankomunitateak gauza interesgarriak egin dituela erraten ahal dugu. Errate baterako, egin duen lanari esker, Herriko Etxeetan euskara gero eta gehiago erabiltzen da.

Ze pausu eman beharko genituzke hurrengo urteetan euskararekin aitzinera joateko?

Goian errandakoa- rekin bat eginez, lehe-

nik eta behin jendeari Mankomunitatearen berri (Euskara Zerbitzua, batzordeak...) eman beharko litzaioke. Bertzalde, datuek diotenez Bortzirietan euskararen erabilerari dagokionez hutsune batzuk daude, batez ere gazteen artean. Beraz, Mankomunitateak aitzinera begira bide hori landu beharko du.

Zein da politiko eta agintarien zeregina euskararen normalizazioan?

Erran ohi dugunez,

politiko eta aginatriek herriaren aitzinean ejenplua eman behar dute, hau da, eredu izan behar dute herriarentzat. Hauek, kontuan hartu beharko dute Bortzirietan euskararen aldeko jarriera nagusitzen dela eta beraz, herritarren ordezkari diren neurrian, bide horretatik jo beharko dutela.

Hauteskundeetan herrietan aurkeztu diren talde gehienek beren proposamene- tan ez diote euskarari inolako pisurik eman.

Halere, gai honekin kontzientziatu daitez- zen eta honetan lan egin dezaten proposa- tuko nieke alderdiei.

Irakaskuntzaren mundua ezaguna duzu. Gainerako alorrek nola ikus- ten dituzu euskararen egoerari dagokionez?

Irakaskuntzari da- gokionez, bistakoa da azken urteetan euska- rak irabazi haundia izan duela. Gaur egun euskarazko ikastere- duak nagusi dira Bort- zirietan. Halere, alor honetan ez dago dena konpondua. Izan ere, Administrazioak edo Gobernuak eskolekin dituen harremanak gehienetan erdaraz izaten baitira. Gaine- rako alorretan hutsune gehiago ikusten ditut. Herriko Etxeetako administrazioan ber- tan, goian erran dugun bezala, orain dela urte batzuk ez bezala, gaur egun euskarak badu sarbiderik, erabiltzen hasia da. Halere, lanik haundiena egiteke dago, legeak gure eremuan euskara eta erdara maila berean paratzen baditu ere, ukaezina baita erdarak lehentasuna daukala.

Orohar erraten ahal dugu Bortzirietan euskararen egoerari dagokionez, pozik egoteko arrazoiak ba- ditugu ere, hau ez dela lasai egoteko modu- koa, gauza gehienak egiteko baitaude.

Berriak

Txaloketa

Salaketa

Liburuak



Orain euskaraz mintzatzen gara

Bertze zenbait kuxetan lehendik hasiak baziren ere, oraingoan Nafarroako Aurrezki Kutxak bere bezeroei kutxazain automatikoetan egin beharre-

ko eragiketak euskaraz egiteko aukera ematen die. Horretarako, txartela sartu eta hizkuntza aldaketa eginez gero, kutxazainak euskaraz erantzungo dizu.



Lesakako Andra Mari zaharren egoitzan lan egiteko ateratako lau lanpostuetarako oposizioetan euskararen azterketa aukerakoa izan zen, hau da, nahi

zuenak baino zuen egin. Lesakako udalaren jarrera behin eta berriaz salatzen ari bagara ere, badirudi honek ez duela inongo eraginik.

Herriko Plaza

Udal hauteskundeetan Bortzirietako Herriko Etxeetarako 13 talde eta alderdi aurkeztu ziren. Hauetatik 9 alderdi politiko bezala aurkeztu ziren eta gainerakoak berriaz, talde independente gisa. Hauteskundeak pasa eta udalbatzak eratuak dauden honetan, gogoeta batzuk egitea interesgarritzat jo dugu: Talde hauek egin duten propaganda nolakoa izan da euskararen presentzia? Bertzalde, Bortzirietako alderdi eta taldeek ze egitasmo dituzte hurrengo urteotan euskara eta Euskara Mankomunitateari dagokionez. Hamairu talde hauek aurkeztu dituzten programetan gutxienez euskara eta erdaraz erabili dituzte. Ha-

Patri ARBURUA
Bortzirietako Euskara Teknikaria

Euskara Herriko Etxeetarako hauteskundeetan

lere, denek ez dute euskara modu berean erabili:

- 'Arantzaren Alde' eta Igantziko 'Herri Taldeak' euskara hutsez egin dute beren propaganda.
- Etxalarko 'Herri Taldeak' eta Lesaka eta Berako HBk programak elebizi egin dituzte baina euskarari lehentasuna eman diote, gehiago erabiliz edota erdarazko laburpenak erantsiz.
- Bera, Etxalar eta Lesakako EAK, Lesaka, Arantza eta Igan-

tziko PNVk eta Berako 'Herrialdek' beren programak bi hizkuntzak maila berean erabiliz egin dituzte.

- Etxalarko UPNk ere bi hizkuntzetan egin du bere propaganda, baina erdarari eman dio lehentasuna. Bertzalde, erdarazko testuetan ez dago inolako akatsik eta euskarazkoetan berriz, hankasartze dextente aurkitu ditugu: "Etxalarreko" (=Etxalarko); "haundiz" (=aunitz)... Egitasmoetan euskara eta Mankomunida-

dearen aipamena egin duten taldeek, hagitz modu orokorrean aipatu dute, egitasmo zehatzik gabe:

- Zenbait taldek ez dute euskara konturik aipatu ere egin: Arantza, Igantzi eta Lesakako PNV eta Etxalarko UPN, Herri Taldea eta EA.

- Bertze batzuek, berriz, zeharkako aipamena egin dute, Bortzirietako Mankomunitateak bultzatu nahi dituztela erranez: Igantziko Herri Taldea eta Berako Herrialde.

- Euskara eta Mankomunitatea beren egitasmoetan aipatu dituzten taldeak hauek dira: Lesaka eta Berako HB, Lesaka eta Berako EA eta Arantzaren Alde. Denek euskara eta Mankomunitatea bultzatu behar direla diote



«Goenkale. Bizitzak zainak labur»

Arralde Taldea
Elkar, 202 orr.

Liburu hau, bide berri bat urratzea datorrena, telebista baten fruitua da. 1994ko urrian Euskal Telebista Goenkale telesaila ematen hasi zen. Hasiera hartan inork gutxi ikusirik zuten gerora izan duen arrakasta.

Arralde eta bizia ematen dioten pertsonaiak paperera aldatu dira oraingo honetan.



«Iheskaria»

Pramodya Ananta Toer
Txalaparta, 184 orr.
Itzultzailea:
Jose Emilio Txoperena

Pramodya, Indonesiako egilerik ezagunena eta errepresaliatuenak Bigarren Gerra Mundialaren azkeneko egunetan bere bizitza salbatu nahian borrokan diharduen herri baten eleberriz basatuta erakargarria dakarkigu oraingoan. Guztiz berezkoa, intentsitate hipnotiko batean murgiltzen gaituen eleberriz hau Boroko irla-gartzelan idatzia izan zen.

Nolakoa da Euskara Mankomunidadea?

Hemen duzue Euskara Mankomunidadearen organigrama. Ikusten duzuen bezala, Mankomunidadearen barrenean talde ezberdinak daude. Ikus ditzagun banan bana:

Herrietako Euskara Batzordeak


Arantzan ez bertze, gainerako herrietan Euskara Batzorde bat dago. Hauetan Herriko Etxeko ordezkariak gain, gizarte sektore ezberdinetako ordezkariak (eskoletakoak, elkarteetakoak...) eta herritar euskaltzaleak biltzen dira. Bilerak hauek herri bakoitzean hilabetero izaten dira.

Batzarra

Batzarra hau bi urtetik behin biltzen da eta bertan, borts herrietako batzordeetako partaide guztiak biltzen dira. Orohar, batzar honetan egindako lanen balorazioak eta funtzionamenduaren gora beherak aztertzen dira.

Aholkularitza Batzordea

Hemen herrietako Euskara Batzordeetako zazpi ordezkari biltzen dira (bina ordezkari Lesaka eta Be-



ratik eta ordezkari bana Arantza, Etxalar eta Igantzitik).

Batzorde honen eginkizun nagusia Batzorde Erabakiorrari aholkuak ematea da. Hori dela eta, ordezkari hauek Batzorde Erabakiorraren bileretara joaten dira.

Euskara Zerbitzua

Bortzirietako Euskara Zerbitzuak Arantzako Herriko Etxean du bulegoa. Bertan egunero goizeko 8etatik arratsaldeko 3etara euskara teknikaria egoten da. Langile honen eginkizuna Euskara Mankomu-

nidadearen sail hauek koordinatzea eta hauen proposamen eta plangintzak aitzinera eramatea da.

Batzorde Erabakiorra

Herriko Etxe bakoitzak, lau urtetik behin, Batzorde honetan parte hartuko duten ordezkariak hautatzen ditu. Denetara zazpi zinegotzi daude batzorde honetan, proportzio honetan hautatuak: Bera eta Lesakatik bina zinegotzi eta Arantza, Etxalar eta Igantzitik zinegotzi bana.

Izenak dioen bezala, batzorde honek erabakiak

hartzen ditu. Bertzeak bertze, aurrekontuak, plangintzak eta batzordeetatik etor daitezkeen proposamenak aitzinera ateratzea bere esku dago.

Beraz, ikusten denez, Euskara Mankomunidadea erakunde irekia da; edozeinek parte hartzen ahal du bere batzordeetan. Zeu ere euskararekin kezkatua baldin bazaude, baduzu zer erranik eta non eginik. Zatoz zure herriko batzordearen bileretara:

- **Beran**, hilabeteko bigarren asteartean 5,30etan Herriko Etxean.
- **Etxalarren** hilabeteko azken ortziralean 7etan Zentroan.
- **Igantzin** hilabeteko lehen ortziralean 7etan Bil-tokin.
- **Lesakan** hilabeteko lehen asteazkenean 6etan Herriko Etxean.

Bortzirietako
Euskara Zerbitzua
Tfnoa: 63 41 25

AHOLKURIK BEHAR IZANEZ GERO, DEITU

Etxe berriari izena nola idatzi, hilarrietako plakatxo bat nola moldatu edo komertzio, jatetxe edo ostatu berriaren izena euskaraz nola idatzi ez badakizu, deitu

634125

Malerreka

Urrotzko Sanmiguelak, irailaren 28tik urriaren 2ra ospatuko dira

Etxekoandreen eguneko txupinazoarekin hasi eta hainbat ekitaldi izanen dira bortz egunez

Ortzeguna 28
Etxekoandreen Eguna
8etan txupinazoarekin hasiera emanen zaie aurtengobestei. **9etan** zopak eta txuritabeltzak Herriko Ostatuan. **Gauko 12etatik** aurrera dantzaldia Mordesto akordeolariarekin.

Ortizirala 29
San Miguel Eguna
8etan argi-soinuak. **12etan** Meza Nagusia herriko zaindariaren ohorean. Ondoren herri kirolak herriko gaz-

teen artean. **1,30etan** luntxa Herriko Ostatuan. **5etan** pailazoak: Trokolo taldea. **8etatik 10etara** dantzaldia. **12etatik 4etara** moztorro dantza.

Larunbata 30
Haurren Eguna
8etan argisoinuak. **10,30etan** mus eta txintxon txapelketen hasiera. **5etan** haur joakoak. **8etatik 10etara** dantzaldia BASAJAUN taldearekin. **12etatik aurrera** gaurpasa BASAJAUN tal-



dearekin. **6etan** zingar-jatea. **Igandea 1**
Jubilatuaren Eguna
8etan argisoinuak. **11etan** mus eta txintxon txapelketa. **1etan** aizkol apostua: Etxe-

berria eta Jaunarena, Senosiain eta Barberenaren kontra. **5etan** pilota partidoak. **8etatik 10etara** eta **12etatik 3,30etara** dantzaldia BASAJAUN taldearekin.

Urriak 2
Herritarren Eguna
8etan argisoinuak. **11etan** mus eta txintxon txapelketan finalak. **2etan** herri bazkaria Xebastian Lizaso eta Angel Mari Peñagarikano bertsolariekin eta Apeztegia anai-arrebak akordeolariekin. **6etan** sokatira norgehiagoka ezkondu eta ezkongabeen artean. Bestak akitzeko, arratsaldean eta gauetan dantzaldia akordiolariekin.

Beintza Labaiengo uso ehiza postuak hasierako prezioetan saldu ziren

Lozabiango postuak ez ziren saldu lehen enkantean

PATXI OTXANDORENA

Beintza-Labaiengo uso ehiza postuen lehiaketa-enkantean ez zen izugarritzko preziorik ordaindu eta kasu gehienetan hasierako prezioan saldu ziren.

Honela, Aieletako sei postuak 1.400.000 pezetaren truke erosi zuen Tolosako ehiztari talde batek. Ameztiako postuengatik 850.000 pezeta ordaindu zuten donostiar batzuk. Hogeitazun barreranean eskuratu daitezke oraindik postu horiek 'sextioaren' bitartez, hau da, prezio horien seitek bat gehiago ordainduz. Azkenik, Lozabiango pos-



Bestetako zikiro-jatean Lizaso eta Egaña bertsolariak izan ziren Beintza-Labaienen. Orain ehiza denboraldiak pentsatzen hasiak dira...

tuak ez ziren saldu, inork ez baitzuen hasieratik eskatzen zen milioia eskaini. Orain, %20a merkeago ate-

rako da.
Haize-errota
Beintza-Labaienen ere haize-errotak ezartzekotan dabilta.

Probak egiteko eta inguru horretan haizearen indarra neurtzeko dagoeneko haize-errota bat jarri dute.

ttipi-flash

Dirulaguntza Behinpin taldeari

Behinpin kultur taldeak 92.000 pezetako dirulaguntza hartu du Nafarroako Gobernuak 'Bianako Printzea' erakundetik bulegorako materialek eta moilek erosteko.

Bertsolaritzari buruzko ikastaroa

Zubietan antolatzeagatik 101.000 pezetako dirulaguntza hartu du Malerrekako Zerbizitza Mankomunitateak.

Goizueta

Haize errota parkea eginen dute Loitzate mendian

Argindarra produzituko duten hamasei haize errota jarriko dira bertan

ESTEBAN AROZENA

Udala eta Energía Hidroeléctrica de Navarra (EHN) delakoaren ordezkariak sinatu berri duten komenioaren arabera, argindarra ekoiztuko duten hamasei haize errota altxatuko dira Loitzate mendiko lur komunalean, 122.000 m² erabiliko direlarik horretarako. Dena den, metro hauetatik 11.000 bakarrik behar dituztenez, gainerakoa libre geldituko omen da orain arteko zerbitzu bera egin dezan.

Hitzarmen honetan udalaren esku dauden lurretan eraikiko diren 16 haize errotaz bakarrik hitzegiten baldin bada ere, 63 izan omen ditzake noizbait



Haize-errota bakoitzaren truke 200.000 pezeta jasoko ditu urtero Goizuetako udalak

Argazkia: Joxe Lacalle

Loitzateko haize parkeak, horrela dio behintzat EHNk.

Komenioaren puntu interesgarrienak aipatuz, esan adibidez, urtean 200.000 pezeta

jasoko dituela udalak generadore bakoitzarengatik, 3.200.000 pezeta guztira. Argindarraren prezioa igotzen den portzentai berean igoko da urtez

urte diru kopuru hau ere. Diru sarrera honetaz gain, obra baita menari dagozkion tasak eta lizentzi fiskalak ordainduko ditu EHNk, guzti hauengatik

milioi bat pezeta aurreratu duenarik.

Nafarroa Oinezekin elkartzasuna

Urriaren 15ean Tuteran ospatuko den Nafarroa Oinezekin antolatzaileak herriko Euskara Batzordearekin harremanetan jarri dira laguntza eta elkartzasuna eskatzuz. Tuterako euskaltzale kopurua urri xamarra denez, beste herritara laguntza eskatu beharrean aurkitu dira egun horretarako 1.500 lagun behar dituztela esanez. Zirkuitoko taberna batean lan egingo dute hemendik jotzen direnek. Urrutian izena eman daiteke urriaren 1a baino lehen.

Areso

San Migelera bisita egin zuten zenbait herritarrek

Beste 21 herrietako jendearekin bildu ziren aresoarrak

JUANA M^a SAIZAR

Larraungo artza-pezgoak antolatuta irailaren hasieran Aresoko herritarrek beste 21 herrikoekin batera San Migelera bisita bueltatu zioten. Herri bakoitzak bere gurutzearekin elizara sartu eta ongietorria, aitortza eta meza ospatu ziren. Fernando Sebastian gotzaia ere han zegoen. Denek el-



Ubideko Luis Marzolen txerriak 20 txerrikume egin zituen

Argazkia: Juana Mari

karrekin bazkaldu zuten eta txaranga batekin alaitu zuen otordua. Agur bero batekin bukatu zen festa hurrengo urtera arte.

Ehiztarien bilerak

Usoa ehiztarien elkartea hasi da bere bilerak egiten eta ehizarako postuak konpontzea erabaki zuten azkenekoan. Aurten Leitzako kotoarekin elkar-

tu dira aresoarrak eta mendiaren subasta irailaren 23 eta 30ean izanen dira.

Lapurrak agertu dira

Azken aldi honetan lapurrak ibiliak dira herrian, baita bere helburua lortu ere. Elizan, elkarteetan, partikular eta beste etxe huts batean sartu dira. Nahiko kezka sortu da honekin herrian.



Zenbait ikastaroetan izena emateko epea bukatzeko puntuan

Ikasturte berriarekin, bestalde, zenbait aldaketa somatuko dira herriko ikastetxeetan

JOSEBA AZPIROZ

EPA ikastaroetarako izena emateko epea irailaren 22a bitarte zabalik dago eta Udaletxean egin behar da. Aurtengoan, ohiko ikastaroetaz gain (jostungintza, eskulangintza, informatika...) proposamen berri bat sortu da, geriatzia. Talde bakoitzean hamabost ikasle behar dira gutxienez eta matrikula 1.500 eta 4.000 pezeta bitartekoa izanen da.

Bestalde, Eskola Graduatu titulua ateratzeko ere, gutxienez 15 lagunekoa taldea osatu nahi da. Ikastaroa euskaraz izanen da, urritik maiatza bitarte eta ordutegia taldeak erabakiko du. Izena, Udaletxean eman behar daa 25a baino lehen.

Leitzako euskaltegiak ere irekia du matrikulatzeko epea eta irailaren 29a arte luzatuko da.



Hamabi eta hamasei urte arteko ikasleekin bortz talde osatu dira, lau talde euskaraz (79 ikasle) eta bestea erdaraz (11 ikasle). Eskolako egoitzetan egokitu da guzi hauentzako lekua

Artxiboa

Ikasturte berriko nobedadeak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Ikaskuntza Ertainen artean 195 ikasle biltzen ditu ikasturte honetan Leitzako Institutuak.

12-16 urtekoei dagokionez, bi ikas mailen artean 5 talde osatu dira guzira; 4 talde euskaraz (79 ikasle) eta bestea erdaraz (11 ikasle). Institutuaren baitan koordinatuak egon arren, Eskolako egoitzetan egokitu da guzi hauentzako lekua.

IEE-REM ikasten 85 ikasle dauka bi kurtsoan banatuak; lehenbizi 41 ikasle, denak euskaraz, eta bigarren 44 ikasle bi multzotan, erdiak euskaraz eta beste erdiak erdaraz.

Batxilergo Administrazioa egiteko 14 ikasleko taldea dago aurtengo eta baita 5-6 ikasleko Ikasgela Polibalentea ere. Aurtengoan, ez da modurik osatu.

ttipi-flash

Izen-abizenak euskaraz

edo euskal grafiaz idatzi nahi dituenari euskara zerbitzuan emanen zaio informazioa. Tfnoa: 610636 - 510310.

Euskara teknikariak

Hau idazterakoan, udal batzarreak baldintzak erabakitzeak baditu ere, Euskara Zerbitzurako bi teknikari kontratatzeak asmoa du Ultzamaldea eta Larraunaldeko. Interesa izanez gero, erne ibili.

Merkataritza munduan

euskararen erabileran normalizatzeko asmoz, establezimendu gehienekin akordioa sinatu zen iaz. Eskaintza berak mantentzen dira aurtengoan.

BLANCO ANAIK, S.L.

MARMOL eta GRANITOAK

Sukalde entzimerak • Bainua • Hilerria

BERA - Kanttonberri 4, ☎ 631052

IRUN (943) 631084 • LEZO (943) 529390



LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera ☎ 630735 • IRUN ☎ (943) 622305



Eske Onak • Urtemugak • Eskelak

Familiakoren bat edo lagunen bat hiltzen bazaizu **ttipi-ttapa** eskelak, urteurrenak edo eske onak agertzeko toki bat eskeintzen dizu. Deitu gure telefonora:

☎ 63 11 88



Baztan

12-16 urteko Baztango ikasleak Lekarozen arituko dira aurten

Bi mailatan banaturik, 104 ikaslek euskaraz ikasiko dute eta 68k erdaraz

JOSEBA IGARABIDE

Plangintza berriaren arabera, derrigorezko ikasketak 16 urteak arte luzatu dira bi zatitan banatuak: 12 urteak arte (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza), eta 12tik 16 urteak arte Derrigorezko Bigarren Hezkuntza deitzen dena.

Aurten, 12 eta 16 urte bitarte ikasle baztandarrak Lekarozen bilduko dira guztiak. Lehenengo mailan 74 daude 3 taldetan banatuak. Talde hauetako bat erdarazkoa da (29 ikasle) eta bertze biak euskarazkoak dira (45 ikasle). DBHko bigarren mailan 98 ikasle daude 4 taldetan banatuak; 2 talde erdaraz (39 ikasle) eta bertze bi euskaraz (59 ikasle).

IKASKETA

ERTAINAK

16 urtetik unibertsitate bitarteko ikasleentzat aukera zabalagoa da ikastetxe eta espezialidadei dagokionez.

Lekarozen, betiko BBB-BUP eta UBI-COUaz gain, IEE-REM eskainiko da.

Elizondon, bi batxilergo emanen dira;



Herriko mugarrak begiratzen aritu dira azken asteotan. Argazkian ageri dira Patxi Oiartzabal Baztango alkatea, Senpereko Hirigoioren eta Saint-Jean Ainhoako auzapezarekin batera

Argazkia: EGIN

Batxilergo Teknikoa eta Batxilergo Administrazioa. Espezialidade bakoitza bina mailatan banatua dago, eta denetara, 87 ikasle daude, 49 euskaraz eta 38 erdaraz. Moduloei dagokionez, administrazioa eta elektromekanika dira Elizondon ematen direnak, denetara 61 ikaslerekin. Aipatutakoari, laguntza berezia behar duten ikasleez osatutako taldeak gehitu behar zaizkio, denetara 12-14 ikasle.

Oronoz-Mugairiko San Martinen, azke-

nik, azken urteotan bezala Oihangintza, Hostalaritza eta Mekanika-soldadura irakasten segituko dute. Elizondoko Lanbide Eskolakoak bezala, San Martin Eskolako ikasleek praktikak egiten segituko dute inguruko lantegietan.

Oihanberritzea

Baztango Batzar Nagusiak buruilaren 11n egindako batzarrean, Alkurruntz, Orabidea, Intzulegi eta Mugakolepo oihanberritzeko proiektuak onartu zituen.

Zinea euskaraz AEKren eskutik

Baztango AEKk antolatuta euskarara itzultutako filmak ikusteko aukera izanen da egunotan zenbait herritan. Irilaren 20an, asteazkenean, *Wanda izeneko arraina* pelikula ikusgai izan zuten Iruritan. 21ean, ortzeguna *Hara nor dagoen hizketan* emanen dute Erratzun; 22an, ortzirala, *Segobiako ihesaldia* Berroetan eta datorren ortzegunean, 28an, *Bonny & Clyde* Elizondon. Emanaldi guztiak gaueko 9etan.

ttiipi-flash

Elizondoko euri-urak

biltzeko proiektua Hirurteko Plangintzaren dirulaguntza jasoko du. Aurrekontua 7.537.352 pezetakoa da eta Nafarroako Gobernuak 4.899.278 pezeta emanen ditu.

Arizkungo

elizan erlojua jartzeko estudioa eginen du Balleko Etxeak. Bizilagunek ordua jakiteaz gain kanpainodorea dotoretuko dela uste dute.

Dirulaguntza dantza taldeei

Iruritako Guraso elkarteak 198.000 pezetako subentzioa jaso du Biana Printzea erakundetik dantza taldeko jantziak berritzeko. Baztango dantzari taldeak ere 161.000 pezeta jaso ditu.

Etxez etxeko laguntzailea

izanen da urte bukaera arte Joaquina Urriaz, Ongizate Zerbitzuaren barnean.

ERRATZU
OKINDEGIA

zure eguneroko ogia

© 453168 - ERRATZU

SAS KAITZ
fontanería
calefacción

Empresa colaboradora de



Era guzietako instalazioak:
Etxekoak, industrialak...

Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO



JATETXEA

© 580297

Pedro Axular

ELIZONDO

Santxotena

Urrian sartu, Anizko bestak ailegatu

Irailaren 30etik urriaren 3ra ospatuko dira aurtien

PABLO MENDIBURU

Larunbata 30

Bezpera

8etan altxaferoak bes-tei hasiera emanaz. 12etatik 4,30etara dantzaldia Martinen taldearekin. Ondotik zinger jatea.

Igandea 1

Arrosarioko Amabirjina

11etan Doneztebeko txistulariak herrian barna. 12etan meza nagusia. 1etan otordua. 7etan Nafarroako 2. mailako aizkolarien kanporaketa. Ondotik Iruña dantza taldea. 8,30etan Martinen taldearekin dantzaldia.

Astelehena 2

Haurren Eguna

10,30etan futbito txapelketa: zaharrak gazteen kontra. 11,30etan haur jokoak. 12,30etan mus txapelketaren kanporaketak. 5etan pilotapartidoa. 11etan herri afaria. Etxe bako-



Oronoz-Mugairiko bestetako mus txapeldunak, Juanito Hualde eta Luis M. Elizaintzin

Mena

tzak nahi duena eramaten ahal du.

Asteartea 3

Adiskidetasun Eguna

10etan Anizko inguruak zaldi gainean ikusteko aukera pare-

gabea. 1etan mus txapelketaren finalak. 2,30etan zikiri jatea Joxe Angelek alaitua. 11etan zinger jatea beste akabaila ona emateko.

Enrique Urrutia hil da

Josu INZARTE

Enrique Urrutia, Oronozko El Carmen eta San Martin ikasketxeetako fundatzailearen, Martin Urrutia zenaren iloba zen eta bertze karguen artean, Urrutia fundazio-ko lehendakaria zen.

Oronozko alkatearen eta bere arteko zenbait bileren ondoren, Enrique Urrutiak San Martin eskolako frontoia herriari eman zion, oronoztarren erabilerrako. Iazko udan, bere borondate ona eskertzeko, herriak Oronoz-Mugairiko Semeorde izendatu zuen.

Urriaren 29an, bere aldeko hileta ospatuko da Oronozko elizan.

Anizen


dauden bide seinaleak gehitzeko eta haunditzeko eskatu du bertako alkateak. Pertsona eta aziendak pasatzen diren herrigunea dela adierazi beharko dute seinale horiek eta haundiagoak egin, bide ondoko belar eta sasiek estaltzen baitute bertela.

Almandozko

babes ofizialeko etxebizitzak martxan daude. Lau egin behar dituzte eskolaren gibelaldean.

Argazki zaharren

berreskuratze kanpaina berri bat hasi da, hirugarrena eta Braulio Iriarteren omenez aurtengoan. Hilabete bukaera artio uzten ahal dira Arizkunenean.



SOULE

GURUTZE eta HILARRIAK

45 30 38 ARIZKUN • 12 35 72 IRUÑA



ZURE ARGAZKIAK ORDU BATEAN EGITEN DITUGU

EZKONTZETAKO ERREPORTAIK

LA 100 URTE KALITATEA ETA PROFESIONALITASUNA ESKEINIZ

ELIZONDO
Tel. 58 01 55

DONEZTEBE
Tel. Fax. 45 08 25



HIRI ARTEKO, ESTATU BARNEKO eta NAZIOARTEKO BIDALKETAK

Paketeak eta dokumentuak bidaltzeko modurik azkarrena

- **GARRAIO URGENTEA:** Estatu guztian goizeko 10ak baino lehen entregatuko dugu.
- **24 ORDUKO ZERBITZUA:** Arratsaldeko 6ak arte entregatuko dugu

ZERBITZU GARANTIZATUA

Martin Urrutia Etorbidea z/g • ORONOZ MUGAIRI
Tfnoa eta Faxe: 592179

Sara

Hogeitasei bikotek parte hartu zuten Goitibehera lehiaketan

Zuraideko Bessonart eta Ithurryk gidatutako tresnak irabazi zuten ekitaldia

MIXEL ETA JACQUELINE

Buruilaren 2an iragan zen eta 26 bikotek parte hartu zuten. Saratik beretik 44 bikotek jokatu zuten eta azpimarra dezakegu 4etarik 3 neskez osatuak zirela eta bikote bat zela bakarrik gizon-nezkoa. Auzo herrietarik ere jin ziren: 4 Azkaindik, Zuraidetik 1, Beratik 2...

Ezta orroitarazi beharrik holako lasterketa lehen aldikotz egin zela Iparraldean, bainan ez ohizko moduan, kautxuzko gurpilak erabili dituztenez. Goitibehera elkartearen xedea litaike josteta hau egiazko kirol bat bezala kontsideratua izatea eta behar bezalako txapelgo baten lortzea, kanporaketak eginez eta arauak finkatuz.



Neskek ere parte hartu zuten goitibehera lehiaketan

Artxiboa

Bukatzeko, erran dezagun bide bazterretan eta helmugan

jende asko bazela. Iduriluke eskualdea goitibeheraz jabetu dela, geroak emanen du erakusterat hori egia denez!

Sariak plazan banatu ziren eta txapeldun atera ziren Bessonart eta Ithurry zuraider gazteak. Goresmenak deneri.

Ikastola

Duela hiru urte Olhain ikastola sei haurrekin ideki balin bazen aurtengo ikasturtea hamabi haurrekin hasi dugu. Gainerat aurtun lau haur Senpereko ikastolako lehen mailarat joan dira eta ahal bezain ikasturte ona desiratzen diegu oraidanik.

Berri onekin segitzeko, orroitaraz dezagun Urruñan azkenean Ikastola zabaldu dela oztopo guzaien gainetik eta hori guraso eta laguntzaile batzuen nahikeriari esker.

Andereñoa Bernardette Bera, urte batzuz Saran egondakoa da.

KIROMASAIA

Iñaki Razquin

KIROL MASAIA

- Besoa - Belauna
- Ukalondoa - Zurmioa

GIHAR LASAITZEA

BIZI MASAIA

- Zerbikalak - Kaderak
- Lunbarrak - Ziatika eta sasi-ziatika

ERLAJAZIO MASAIA

Gihar kontrakzioak, lanean postura txarrean egoteagatik...

TERAPEUTA DIPLOMATUA

Kontsulta leku zentrikoan
(Urdanibia Plaza ondoan)

Larretxipi 17 Behea - IRUN Tel: 943-63 34 81

Ordutegia: Astelehenetik ortziratera 16.00tik 20.00ra

Larunbatetan 10.00tik 14.00ra

R.P.S.: 199/94

ARLO ARDOTEGIA

Ardoak • likorrak •

freskagarriak

Santiago 56, Tfnoa: 45 32 66 • ELIZONDO



ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km

Tfnoa.: 59 91 31 - URDAZUBI



Pierresenea

OSTATU - JATETXEA

Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • © 592043 • OROÑOZ-MUGAIRI

ttipi-ttapa

6.100 harpidedun 21.000 irakurle

ttipi-ttaparekin zure publizitatea
zonako sukalde-xoko guztian izanen duzu

Zugarramurdi


Elizaren barnekaldea pintatzen ari dira hilabeteotan

Bitartean, meza frontoieko jatetxean emanen dira

KORO ETA MARGARI

Eliza barneko aldeak pintatzen ari direla eta hilabete t'erdi edo bi hilabetez eliza etsita egonen da, lanak bukatu arte. Bitartean meza frontoneko jate txek emanen dira betiko orduetan. Obra hau Iruñeko katedralaren errestaurazioa egin zuen arkitektu berak egiten ari du.

Eliza 1781. urtean egiten hasi eta hiru urte iraun zuen obrak, Juan Bautista Dutari eta Maria Borda senar-emazteen enkarguz. Ordura arteko eliz tti-



1781 eta 1784. urteen artean egin zen Zugarramurdiko eliza

kiaren orde z egin zen, nolazpaite beraiek erlijioari ematen zioten

garrantzia elizan ere ager zedin. Bikote hau herriko ongile ospe-

tsua izan zen, modu berean egin baitzituzten bi eskola, mutil eta nes-

kentzat, eta ospitale bat, garai hartan herri ttikietan ezagutzen ez ziren abantailak.

Kurtso hasiera

Irailaren 11n hasi ziren haurrak eskoletan. Zugarramurdi eta Urdazubi artean denetara 50 ikasle dira, baina erran behar da ere gan den ikasturtean 13 hurrek bukatu zutela eta aurtengoan berriz, lau bakarrik hasi direla. Maixuen aldetik betiko kontua: 7 maixutatik, 6 berriak... badakigu "zakurren purdin" bizi garela baina pena da haur gixajoez pekatzea.

Zure semeak behar duen instrumentu musikal hoberena aurki dezakezu finantzaketa hoberenarekin.

Moeta guztietako instrumentuen erakusketa haundiena: Teklatuak, saxofoiak, tronpetak, bateriak eta abar.

Piano, akordeoi eta trikitixen importatzaile zuzenak gara. Lantegi prezioak.

Errekargurik gabeko finantziaketa 24 hilabete arte.

Erakusketako 1.400 m²

Musical
Tomas
MEGADENDA

20 urte zure zerbitzuean

C/ Ascunción, 4 y 6 • Tfños. (948) 26 85 53 -75 • 17 07 11 • Fax. (948) 17 03 81 • IRUÑA

EZKONTZAK

Enrique Gilsanz Palancar eta **Ana Beatriz Calvo Alava**, Madril eta Elbetekoa, irailaren 2an.

Ignacio M^a Irigoien Aleman eta **M^a Dolores Etxeberria Rekarte**, Amaiur eta Elizondokoa, irailaren 2an.

Juan M^a Belarra Belarra eta **Juana M^a Oteiza Bikondoa**, Doneztebe eta Irurritakoa, irailaren 2an.

Alberto Nicolas Aracues Mazizior eta **Miren Mikelajauregi Intziarte**, Lesakakoak, uztailaren 22an.

Manuel Telletxea Bergara eta **Aran-txa Perugorria Urkia**, Etxalarkoak, irailaren 9an.

Jose M^a Bertiz Goñi eta **M^a Aranzazu Agirre Alkaiaga**, Beintza-Labaien eta Berakoa, irailaren 2an.

Juan Carlos Perez Romero eta **Belen Cueva Ruiz**, Igantzi eta Donostiakoa, irailaren 9an.

Juan Tomas Loiarde Mariezkurrena eta **M^a Josefa Cabezas Corral**, Bera-koak, irailaren 9an.

Pello Aginaga eta **Cristina Amoros**, Arantza eta Donostiakoa, irailaren 9an.

Jose Luis Anso Zelaieta eta **M^a Julia Loiarde Mutuberria**, Oitz eta Zubie-takoa, uztailaren 8an.

Jose Manuel Velasco Lopez eta **M^a Rosa Urroz Goñi**, Iruña eta Labaiengoa, uztailaren 1ean.

JAIOTZAK

Jon Iparagirre Barriola, Leitzakoa, abuztuaren 25ean.

Iraitz Apezetxea Lujanbio, Goizue-takoa, irailaren 4an.

Josu Oteiza Iribarren, Oronoz-Mugairikoa, irailaren 5ean.

Kenari Eratsun San Sebastian, Iturengoa, uztailaren 23an.

Maialen Mutuberria Iturralde, Iturengoa, uztailaren 28an.

Ainhua Zapirain Mariezkurrena, Lesakakoa, abuztuaren 6an.

Mikel Leitza Igartzabal, Lesakakoa, abuztuaren 44an.

Miren Etxepeteleku San Julian, Lesakakoa, irailaren 6an.

Sara Azkarate Elizondo, Donez-tebekoa, abuztuaren 30ean.

Olatz Baleztana Elizalde, Zubietakoa, ekainaren 15ean.

Amaia Inda Jorajuria, Donamariakoa, abuztuaren 12an.

Daniel Saldias Murillo, Urrotzkoa, uztailaren 14an.

Leire Saldias Larraioz, Oitzkoa, uztailaren 26an.

Arantzazu Estanga Urroz, Beintza-Labaiengoa, maiatzaren 30ean.

HERIOTZAK

Julia Tomasa Zugarramurdi Istilart, Arizkunen, abuztuaren 30ean, 80 urte.

Carmen Iturralde Petite, Doneztebekoa, abuztuaren 31n, 73 urte.

Eusebio Santesteban Telletxea, Zubietakoa, abuztuaren 23an, 75 urte.

IOSUNE eta AINHOA

TRIKITILARI ESKOLA

ADI GUZTIOK



HEMEN GAITUZUE GURE EKINTZAK ZUEI ESKEINI ASMOZ. HAUEK DIRA:

TRIKITIXA IKASTAROAK 7 urtetik gorakoentzat
Sunbilla, Mugaire, Ituren, Elizondo, Donamaria

PANDEROA ETA KASTAÑUELAK 5 urtetik gorakoentzat
Baita exhibizio moduan ere. Kantu zaharrak.

DANTZA IKASTAROAK

ANIMATZEN BAZARA EDO INFORMAZIO GEHIAGO BEHAR BADUZU, DEITU
© 45 15 96 (Iosune) edo © 45 07 78 (Ainhua)

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL AGENTZIA

■ Zurich Aseguruak

• Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak

■ Lan aholkularitza

• Nomina eta Aseguru Sozialak

■ Aholkularitza fiskala

• Errenta Deklarazioak, IVA...

■ Inmobiliaria

• Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua

■ Gestoria

• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

SANTIAGO 15 - Tínoa eta Faxa: 580804 - ELIZONDO

BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta	
Urgentziak	088/061
Osasun Zentruak	
Elizondo	452367 / 580235
Doneztebe	450300
Lesaka	637428 / 637336
Leitza	510248 / 510573
Nafarroako Ospitaleak	
Nafarroako Ospitalea	102100
SSko Urgentzi	
Zerbitzua	246750
Virgen del Camino	
Erresidentzia	109400
Gurutz Gorria	226404
Gipuzkoako Ospitaleak	
Irungo ospitalea	614600
Gipuzkoako ospitalea	460299
Erresidentzia	453800
Anbulatorioak	
Irun	630264 / 621106
Anbulantziak	
Oitz	450242 / 450805
DYA	
Lesaka	
(Larrialdiak)	(943) 464622
Doneztebe	
(Larrialdiak)	171717
FUNERARIA	
Doneztebe	450475
Elizondo	580924
Lesaka	637404
Suhiltzaileak	
Oronoz-Mugairi	592255
Garraioak	
Bidasotarra	631150
Baztanesa	580129
Leitzaran	515018
Aberiak:	
Iberduero	450335 / 450336



Joan den urtean baino kasik 3.000 turista gehiago

Gehienak abuztuan pasatzen dira eskualdetik

21.427 turista pasatu dira uztaila eta abuztuan eskualdeko turismo bulegoetatik. Iaz 18.785 igaro zirela kontuan hartzen badugu, kasik 3.000tan igo da bisitari kopurua. Joan den urtean bezalaxe, abuztua aukeratzeko dute gehienek inguru honetara etortzeko, uztailan etortzen direnak bikoizten baitituzte.

Bertzalde, irailaren 13an, Iñaki Cabases Industria, Komertzio eta Turismo kontseilaria eta Javier Aiesa Turismo Sailako zuzendaria Bertizko Partzuergoa bisitu zuten.

TURISTA-KOPURUAK

	1994		1995	
	Uztaila	Abuztua	Uztaila	Abuztua
BERA	987	1.900	976	2.000
ELIZONDO	1.070	1.860	1.874	3.822
BERTIZ	4.317	8.651	4.464	8.291
Denetara	6.374	12.411	7.314	14.113

Itoizen kontrako manifestazioa larunbatean

Larunbat honetan, irailak 23, manifestazio bat burutuko da Iruñean 'Itoiz Gelditu' lelopean. Itoizko koordinadoratik adierazi dutenez, Gobernu berriak ez dio irtenbi-

derik eman urtegiaren arazoari. Arazo honek soluziorik gabe segitzen duela adierazteko, ararratsaldeko 6etan aterako da manifestazioa autobus estazioetik.

Paper-bilketa abenduan hasiko da Bortzirietan

Bortzirietako hiri-hondakinen mankomunitateak papera biltzeko zerbitzu berezia paratu nahi du abendutik aitzinera, azkeneko bileran adierazi zenez. Dena den, zerbitzuan martxan jarri aitzinetik informazioa bidaliko da etxe guztietara. Dagoeneko, Lesakako industrialdean 350 m²ko almazena hartua du hiri-hondakinen mankomunitateak, papera, nahiz beira bertan biltzeko.

MIGUEL M^a IRIGOIEN BERRIZ LEHENDAKARI

Hauteskunde ondo-rioz, Bortzirietako hiri-hondakinen mankomunitateko kargu berriak izendatu ziren eta azkeneko lau urteotan bezala, Miguel M^a Irigoien Etxalarko alkatea izanen da lehendakaria. Lehendakariordea, berriz, Jose M^a Irazoki Berako zinegotzia izanen da. Aurtengo aurrekontua, 53.615.908 pezetakoa da diru sarrerei dago-kienez eta 48.390.397 ptakoa gastuetan.



**Esker Onak
Urtemugak
Eskelak**

Familiakoren bat edo
lagunen bat hiltzen bazaizu
ttipi-ttapak
eskelak, urteurrenak edo
esker onak agertzeko toki
bat eskeintzen dizu.
Deitu gure telefonora:

☎ 63 11 88



**AKORDEOIAREN
GOI-MAILAKO
AKADEMIA**

Angel Manuel Belio

AKORDEOIAK SALDU ETA ALKILATZEN DITUGU

DOMINĖNEA Etxea
San Andres karrika, 40 - NARBARTE
☎ 943 - 61 50 55

Eskualdeko hiru pilotarik parte hartuko dute frontoi laburreko Munduko Kopan

Juantxo Apezetxea eta Asier Olaizola goizuetarrak eta Unai Apeztegia iturendarra aukeratuak izan dira txapelketa honetarako

Iruñean irailaren 29tik urriaren 7ra jokatu den frontoi laburreko I. Munduko Kopan parte hartzeko eskualdeko hiru pilotari aukeratuak izan dira.

Eskuz banaka aritzeko, Juantxo Apezetxea goizuetarra eta Haritz Berraondo aukeratu dituzte. Eskuz binakako bikotea osatzeko berriz, aukera haundiak izanen dituzte Asier Olaizola aurrelari goizuetarrak eta Iturengo Unai Apeztegia atzelariak. Beraiekin batera Iker Telleria bizkaitarra eta Burgosko Rai Blanco aukeratu dituzte.

ESPERIENTZIA BERRIA APEZTEGIA ETA OLAIZOLARENTZAT

Juantxo Apezetxea-
rentzat estatuko selek-
ziorako aukeratua izan



Asier Olaizola, Juantxo Apezetxea –behitian ezkerretik hasita lehena eta bigarrena– eta Unai Apeztegia –erdiko lerroan, bigarrena ezkerretik hasita– ilusioz hartu dute aukeraketa

Argazkia: D.Noticias

tea ez da esperientzia berria. Hirugarren mundiala jokatu du, beti ere eskuz banaka. Kuban, 22 urtetik behitiko txapeldun izan zen eta iaz, finala jokatu ez bazuen ere, txapeldun

izan zen Iparraldean jokatutako txapelketan. Unai Apeztegia eta Asier Olaizolarentzat mundu mailako lehen esperientzia izanen da. Iturendarra ilusioz beterik dago. “Nere hel-

burua ongi aritzea eta datorren urtean sub-22 selekzioan sartzea da”. Goizuetarra ere pozik ageri da, “dagoen kompetentziarekin ez baita errega eskuzko selekzio baten sartzea”.



Omenaldi hunkigarria eskaini zitzaion irailaren 2an Jon Irazoki Gure Txokoako futbolaria izandakoari. Familiak Berako jokalariek emandako plaka, lore sorta eta 5 zenbakia zeraman kamiseta jaso zuen. Joseba Irazokik, Jonen anaiak, ohorezko sakea egin zuen eta aureskua ere dantzatu zen. Kirol arloari dagokionez, Beti Gaztek irabazi zuen txapelketa, Gure Txokoari sartutako gol bakarrari esker.

Legarra

XAKEA

Lesakako Nazioarteko txapelketa

Katalunyako Victor Vehi suertatu zen garai-
le irailaren 2an Lesakan
burututako Nazioarteko
II. Xake Irekian. Bigar-
ren postua Unai Garbi-
su nafarrarentzat izan
zen (Espainiako txapel-
duna jubenil mailan).
Emakumeen artean,
Miriam Muñozek, Eus-
kadiko txapeldunak, ira-
bazi zuen, jubenetan
Alfonso Acostak (Eus-
kadi) eta infantiletan
Miguel Navarrok (Na-
farroa). Herrikoen arte-
an, Juanjo Guerrero izan
zen lehena.

Beti Gazte elkarte-
ak, hainbat erakunde-
kin batera antolatutako
txapelketa honetan 118
xakelarik hartu zuten
parte.

Hamabostaldiko Jokaldiak



Koteto Ezkurra

Doneztebeko erremontelaria.

Sail honetan aunitan
agertu da 22 urteko pi-
lotaria baina Bingo
Londres txapelketa
irabazteak egitan me-
rezi du. Txapelketa ira-
bazi duen lehen nafa-
rri izateaz gain, sari
hori lortu duen pilota-
ri gazteena da.



Lesakako futbol zelai berria noizko?

Futbol zelai berria es-
katuz pankarta atera
zuten Beti Gazteko jo-
kalariek ligako lehen
partiduan. Proiektua
egina dago, Nafarroa-
ko Gobernuaren ones-
pen eta dirulaguntza-
ren esperoan. Jauregi-
ko aferak poliki doaz.


Koteto Ezkurra erremon-
telari donezteba-
rrak buruz buruko
Bingo Londres torne-
aren txapelarekin bo-
robildu du aurtengo
uda, momentuan koa-
droan dagoen pilotari
onena dela baieztatuz.

Irailaren 2ko finale-
an goitik behera nugu-
situ zitzaion Aizpururi
Galarretan, azken emai-
tzak (35-21) erakusten
zuenez. Bingo Londres
torneoa, buruz buruko
txapelketa dela erran
daiteke, ofizialki ez bai-
ta horrelakorik joka-
tzen. Koteto txapelke-
ta irabazi duen lehen
erremontelari nafarra
izateaz gain, bere 22 ur-
te bete berriekin garai-
kurra eskuratu duen pi-
lotari gazteena da.

Koteto pozik eta la-
sai agertu zen finala bu-
katzerakoan, "pilotari
guztioak irabazi nahi du-
gun txapelketa da hau"
erranez. "Gustatzen zait

EZKURRA BIKAIN

Bingo Londres txapelketa irabazi
eta omenaldia jaso du Donezteben



Euskaldunon Egunkaria

finaletakoa presioari eta
arriskuari aurre egitea"
gaineratu zuen donez-
tebarrak eta ezin erran
gezurra denik, profes-
ional denetik jokatu di-
tuen lau final nagusiak
irabazi baititu.

AITA ZENARI ESKAINIA

Ez da errex konfor-
matzekoa doneztebarra.
"Erremontelari profes-
ional batek irabazi de-
zakeen guztia irabazi
dut dagoeneko, baina
horregatik ez naiz la-
saituko, linea honetan
segitu nahi dut, gero eta
gehiago exijituko bai-
nante". Txapela es-
kaintzerakoan aita ze-
na gogoratu zuen. Esku
pilotari bikaina izanda-
ko Josetxok ez zuen se-
mea profesional beza-
la ikusteko aukerarik
izan, hilabete batzuk le-
henago hil baitzen, bai-
na berak emandako ira-
kaspenak ederki aski se-
gitu ditu Kotetok.

Bote pronto

Doneztebe A

taldea nagusitu da
Baztan-Errekako la-
xoa kopa txapelke-
tan, irailaren 3an
Arraiozko plazan
jokatutako finalean
Oitzi 9-8 irabaziz.
Doneztebeko talde-
an Iribarren, Zabala,
Ganboa eta Anzizar
aritu ziren. Oitzkoan
berriz, Anso, Ze-
laieta, San Miguel
eta Mindegia. Do-
neztebarrek liga eta
kopa irabazi dituz-
te aurtengoan.

Herri Kirolak

Herriz herri txapel-
ketako lehen fasea
akitu ondoren, le-
henengo konbina-
dan (kozkor biltze,
zakulari, aizkolari,
korrikalari eta ar-
panlariak) Basabu-
ruakoak lehenak
izan dira Ultzama,
Arraioz, Araiz-Bet-
elu eta Beran aitzin-
etik. Bigarren kon-
binadan (ingudea,
txingak eta harrija-
sotzea) Arraioz na-
gusitu da, Basabu-
rua, Ultzama, Bera
eta Araiz-Beteluren
aitzinetik. Larunbat
honetako finalean
Basaburua, Ultza-
ma eta Arraioz ari-
tzeakoak ziren.

Euskal Herriko aizkolari

txapelketako kan-
poraketa burutu da
igande honetan
Etxarri-Aranatzen.
Bertan, Joxemari
Olasagasti, Donato
Larretxea, Anjel
Arrospide, Mikel
Mindegia, Floren
Nazabal eta Joxe-
miel Peñagarikanok
lortu dute urriaren
8an Donezteben jo-
katuko den finale-
rako txartela.

Emaitza onak Nafarroako Eskualde arteko I. Igeriketa txapelketan

Baztan, Leitzalde,
Malerreka eta Bortzi-
rietako 20 igerilarik
parte hartu zuten irai-
laren 2an San Adriango
pizsinan jokatutako
Nafarroako eskualde
arteko I. txapelketan.

Baztan-Bidasoako
taldea osatu zuten ale-
bin eta infantil maila-
ko neska-mutiko hauek
emaitza onak lortu zi-
tuzten, urrezko hiru do-
mina, zilarrezko bi eta
brontzezko bi eskura-
tuz.

Mutikoen infantil
mailan eskuratu ziren
gehienak. Leitzaldeko
Beñat Saralegik bron-
tzezko domina eskura-
tu zuen tximeleta era-
ra 50 metroan eta zi-
larrezkoa aske erara.



Eskualdeko ordezkariak San Adriango igerilekuan

Leitzaldeko Iraitx Aiz-
girik urrezko domi-
na lortu zuen 100 me-
tro estiloetan eta zila-
rrezkoa tximeleta era-
ra 50 metroan. Bortzi-
rietako Txomin Elgo-

rriagak urrezko domi-
naren jabe egin zen as-
ke erara 50 metroan.
Nesken artean, Bortzi-
rietako Jasone Iriartek
brontzezko domina e-
txeratu zuen braza era-

ra 50 metroan. Kate-
goria bereko neska-
mutikoen erreleboak,
aske erara 4x50 me-
trotan urrezko domina
lortu zuen Baztan-Bi-
dasoako taldearentzat.

AGENDA EGUNEZ EGUN

BESTAK

IGANTZI

► Irailaren 28tik
urriaren 1era. Ikus
xehetasunak 12.
orrialdean.

URROTZ

► Irailaren 28tik
urriaren 2ra. Ikus xe-
hetasunak 16. orrial-
dean.

ANIZ

► Irailaren 30etik
urriaren 3ra. Ikus xe-
hetasunak 21. orrial-
dean.

ERAKUSKETAK

BERTIZ

► Urriaren 1a bitar-
te 'Baserría Nafa-
rroako Mendialdean'
izenekoa goiz eta
arratsaldean ikusgai
Bertizko Jauregian.

ELIZONDO

► Irailaren 16tik
30a artio Argazki
zaharren III. berresku-
ratze kanpaina,
"Braulio Iriarte'ri ome-
naldia, Arizkunenean

IKASTAROAK

ELIZONDO

► Helduendako forma-
kuntza ikastaroetan
(EPA) izena emateko
epea irailaren 22 ar-
tio zabalik dago
Elizondoko udal bule-
goetan.

AGENDA PRAKTIKOA

ERREZETA



Legatz isatsa betea

Osagaiak 4 lagunendako

• Legatz isatsa 1.500 gr. • gan-
ba 500 gr. • 4 tipula • 3 azena-
rio • ardo xuria kopa bat • es-
negaina 2dl • gurina 50 gr. •
olioa • gatza •

Prestatzeko manera

Legatz buztana ireki eta hezu-
rrak kendu ondotik, gatza eman.
Kaxuela batean, olioan, hiru ti-
pula eta azenario xehetuak pa-

ratu su ez-tian. Kolorea
hartu baino lehenago
ardoa gehitu.

Zartagi batean gurina
eta bertze tipula ongi
xehatua paratu su ez-
tian. Ongi beratua da-
goenean sua indartu eta ganba
xehatuak gehitu. Minutu erdi be-
randuago, aitzinetik apartatuta-
ko legatz-haragi xehatua bota.
Denbora batez utzi. Labean isats
erdi baten gainean ganba eta



Conchita
VICENTE
La Villa
Jatetxekoa
• IGANTZI •

legatz nahaskia bota eta bertze
isats erdiarekin estali eta lotu.
20 minutuz utzi 200 gradutan.
Labean gelditu den salda ber-
tze zartagira bota eta 5 minutuz
egosi. Saltsa isatsari bota.

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

• Zerrikumea (20 kilokoak):
4.400 pzta.
• Zerri gizona (95-100): 160
pzta./kilo
• Zerramak: 125 pzta./kilo bi-
zirik.



❖ BEHIKIA ❖

• Aretze gizenak:
• Idixkoak: Pzta./kg. Kanak
Extra 540
1.koa 530
2.koa 510

• Urruxak: Pzta./kg. Kanak
Extra 560
1.koa 540
2.koa 520
Oharra: Prezio hauek 300-340
Kg. kanalean dauzkaten idixko
eta 200-250 kg. dituzten urru-
xentzako.
• Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruxak 20.000 eta
idixkoak 32.000 Pzta.
Mestizoak: urruxak 34.000 eta
idixkoak 48.000 Pzta.
Behi zaharrak:
Behi nabar gizona: 410 Pzta./
Kg. Kanak. Behi gorri ona: 490
Pzta./Kg. Kanak.

DATU ITURRIAK: EHNE,
ZUBIRIA MINDEGIAK...



❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza

• Bertako sagarrondoa 950.
• Udareondoa 950 pzta.
• Gereziondoa 1.050 pzta.
• Aranondoa 1.050 pzta.
• Muxika 870 pzta.



❖ BARAZKIAK ❖

• Porruak zientoa 300.
• Piper txorizero zientoa 800.
• Piper morro zientoa 800.
• Piperminak zientoa 600.



MATXINBELTZENEA

LESKA

Arretxea, 22 • Tel.: 62 75 73, Faxa: 62 75 53 • LESKA

KATTU
LANESKAINZA
BEGIRATU SU ORRIKIAN
JATETXEA



ETXANDI
TXOKO
erretegia

Bazkari, afari eta
gosariak

ITUREN

Tfnoa: 45 04 91

Osasuna, oinetan ere



Funtsezkoa da zapata gure hankara egokitzea eta inola ere ez alderantziz.

Oinutsik ibiltzea da oinarentzako modurik naturalena. Sortzerakoan, eskuen antzeko sentiberatasuna izaten da oinetan. Arras inportantea da umea bere bizitzako lehen hilabeteetan oinutsik ibiltzea hondartzan, belar gainean edo alfombra lodi baten gainean ere.

Ikerlan batzuek, errate baterako, frogatua daukate zapatak edo oinetakoak goizik erabiltzen hasten diren umeek, geroago ere oinutsik ibili izan direnek baino gehiagotan izaten dituztela hanka planoak. Eta beste aldetik, bai kirol-oinetakoak eta bai emakume-oinetakoak, kalitate eska-sekoak baldin badira lehenengo kasuan eta takoi haundikoak bigarren, arazoak eta oinaze mingarriak sor ditzakete hanketan.

HANKETARAKO ONAK DIREN OINETAKOAK EROSTERAKOAN...

zenbait gauza kontutan hartu behar dira.

- *Erosten den momentu beretik, oinetakoak atsegin eta goxoak izan behar dute.*

Gaizki zabilta uste baduzu denborarekin zure oina ohitu egingen dela zapataren formara. Alderantziz behar du izan. Lehenik osasuna dago eta gero estetika.

- *Ez erosi oinetako estuegiak.*
- *Zure gustokoak baldin badira eta ekonomiara egokitzen diren umeek gehiagotan izaten dituztela hanka planoak.*

Ikerlan batzuk frogatua daukate oinetakoak goizik erabiltzen hasten diren umeek gehiagotan izaten dituztela hanka planoak.

kitzen direnen artetik, aukera itzazu *larru berata eta hankari arnas-hartzea uzten dioten zapatak. Baztertu zapata gogor eta punta zorrotzekoak.*

- *Goizetik gauera oinak haunditu egiten dira. Hortaz, hobe da oinetakoak arratsaldetan erostea.*
- *Kirol-oinetakoak egokiak dira hanketarako, zola lodi eta malgua baldin badute eta arnasa hartzea uzten badute.*
- *Haurrendako oinetakoak azal eta zola finekoak badira hobe, hanka libreago ibiltzeko. Dena den, hobe da oinez hasi arte zapatarik ez jaztea.*

EROSKI ALDIZKARITIK BILDUA

AGENDA EGUNEZ EGUN

LEHIAKETAK

ELIZONDO

► Irailaren 24an

Pirenaika arrazako behi azienda, Auritz-Burgete arrazako zaldi azienda eta latxa arrazako ardi aziendak. Estatu Espainoleko VIII. lehiaketaren enkantea.

DENETARIK

BERA

► Irailaren 22an

Bortzirietako IKAK antolatua eta arratsko 10,30etan, Bertso Musikatuen Emanaldia Sarasua anaiek emana Kultur Etxean.

LESKA

► Irailaren 23an

AMETS GAIZTO taldearen kontzertua arratsko 11etan, Kaitu Ostatuan.

► Irailaren 28an

Mahaingurua «Euskal Komunikabideak Nafarroan»: Nafarkaria, Xorroxin, Euskalerrria Irratia eta Ttipi-ttapa.

GUARDIAKO BOTIKAK

► Irailaren 18tik

24ra Etxalar, Ituren, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

► Irailaren 24tik

urriaren 1era Arantza, Narbarie, Elizondo (Lezaun), Urdazubi Leitza eta Goizueta.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESKA:

- Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
- Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
- Non:** MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzekalde Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

ETXEBIZITZAK

SUNBILLA. Pisua salgai, Leku-Eder karrikan, 2. zbkia. ☎ 450796.

ALFARO. La Rioja. 2 solairuko etxea salgai, 2 terraza, erretegia, sukaldea, bainua. Mobleztatua. 5.200.000 Pta. ☎ 943-553289 (Alfredo).

LESAKA. Denbora luze-rako pisu bat alokatuko nuke. Interesatuak, harrematarako telefona utzi Tele-Bote ostatuan.

BERA. Pisu mobleztatua garagearekin alokatzen da (45.000 pezeta hilabetean). ☎ 306502 (Lurdes).

Borda edo baserria erosi-ko nuke Baztan, Bidasoa, Malerreka edo Ultzaman. ☎ 234830.

ARANTZA. Pisua salgai herri sarreran. ☎ 637050.

DENETARIK

Leitzako bi neskekin Barañainen pisua konpartitu nahi baduzu deitu 510569 or. (Maider).

Neska bat behar da pisua konpartitzeko Txantrean. ☎ 121115 eguerdi edo gauz.

Donostian pisua osatzeko lagun baten faltan egonez gero, deitu. ☎ 581282.

Gasteizen jendea behar da

pisua osatzeko. Presazkoa da. ☎ 637911 Jose M^a.

Barañainen pisua alkilatuko nieke ikasleei, neskak izan behar dute. Mobleztatua dago, 3 logela, 2 bainugela eta egongela. ☎ 592118.

Leioan neska bat behar da pisua osatzeko. ☎ 630897 Estibalitz, 630579 Miren edo 637991 Maite.

Lesaka edo inguruan gela bat alokatuko nuke, sukalderako eskubidearekin. Gastuak erdibana. Gizon formala. ☎ 637796 Rogelio.

Errotxapean (Iruña) pisu mobleztatua kalefakzioarekin alokatzen da. Hobe irakasleak edo ikasleak badira. ☎ 630217.

Karroa salgai Arantzan. Hagitz egoera onean. ☎ 634162.

Liburuak salgai. 'Areas Logse', 'Consultorio didactico', OHO, BBB, UBI eta Lhrako. Ariketak eta osagarriak. ☎ 610867.

Esne tankeak behar ditugu. ☎ 627531 edo 908-778894 (mugikorra).

Bateria osoa, Cayman markakoa salgai. 95.000 pta. negoziagarriak. ☎ 627622 Agustin.

Bi bizikleta Orbea markakoak, paseatzekoak, sal-

gai. Merke. ☎ 510594.

'Encaje de bolillos' egiten ikasteko kla-seak ematen ditut. Deitu 5etatik 8etara. ☎ 630680.

Kitarra eta **baxu** klaseak ematen dira. ☎ 630217.

Gaztainak erosiko nituzke. ☎ 322164 Alfredo.

LANA

Irakasle tituluduna eta EGArekin urte osoan Beran eta Lesakan klase partikularrak emateko prest. Euskera, OHO, frantsesa, REM... ☎ 630182-637839

Ingeles filologian lizentziatutako neska batek irakasle bezala edo bulegoetan lan eginen luke. Frantses eta ingelesez, idatzi eta solasteko gai eta alemanaren ezagutza. ☎ 943-623541 otorduetan edo gauz, Blanca.

Neska bat behar da 9 hilabetez interna moduan aritzeko Aralarko Baso Etxean. Lan kontratua Aseguro Sozialarekin eta asteburuak libre. Hobe autoa baldin badu joan-etorrietarako. ☎ 391000.

Neska batek lan eginen luke Baztan Bidasoaldean. Pertsona arduratsua eta hainbat lanetan esperientziaduna. Astelehenetik ortziratera edo larunbatera.

☎ 592049. Ana.

21 urteko neska batek, esperientziarekin, haurrak zaintzen edo etxeko lanetan lan eginen luke. ☎ 637936 Ainhoa.

Irakasle titulodunak OHOko gai guztien eta BBB eta REMeko gaztelaniazko klaseak ematen ditu (gaztelaraz). ☎ 627637 Mertxe. 1-3etara eta 8-10etara.

Erizain titulatuak, adineko jendea zaintzen lan eginen luke. Esperientziarekin. ☎ 630578.

Klase partikularrak ematen nituzke, OHO, IEE, euskara, frantsesa. Esperientzia luzea dut. ☎ 510514 Itziar.

IBILGAILUAK

Bigarren eskuko autoak, furgonetak eta mendiko autoak **erosiko** nituzke. **Eskura ordaintzen da.**

☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

Cady Mobileta faltatu da Berako bestetan. Beltza da. ☎ 630540.

Renault 9 autoa, NA-L salgai. Prezio onean ☎ 130200 Mikel.

AZIENDAK

Katukumeak oparituko nituzke. ☎ 631055.

Hiru ahare salgai, urte bat, hiru eta laukoa. ☎ 510545.

Bi hilabeteko **hiru zakurkume** oparituko nituzke. Banaka ere. ☎ 393074.

Collie edo eskoziar artzai **zakurkumeak** salgai, laguntzeko edo arditarako. ☎ 451518-234830.

Katu eta **katakumeak** oparituko nituzke. ☎ 510293.

AGURRAK

Lesakako Nerea Apeztegiari: zorionak 13. urtebetetzear. O.S.D.ren partez.

Leitzako Fran de Carlosi: zutaz maitemindurik nago. Berastegiko baten partez.

Martxoko ortzirale gau batez Txoko ostatuan "ezagututako" neskatxari: barakatzea espero dut. Momentu txarrak ahaztu eta onak gogoratu.

Berako Maitane Telletxeari zorionak opa nahi dizkiot.

Berako Laura Iglesiasi zorionak 13. urtebetetzear.

Oronozko Aintzane Salaberri: zorionak irailaren 11n partez. Oronozko zure lagunak (Jaione, Karmele, Silvia eta Zelai).

U. Almandoz eta **I. Seineri**, aski izango zaizue rolloz, ez da? Asier S.



MATXINBELTZENA

LESKA

Interesatuak 637796 telefonora deitu (Jon edo Mentxu)

Lan aukera!!

KATTU OSTATUA - JATETXEAK:

Ostalaria eta Sukaldaria behar ditu. Sukaldea eta ostatuaz arduratuko lirateke. (Soldata basea + komisia)
Alokairuan ere emango litzateke. Biak batera edo ostatua bakarrik.
Baldintza: Zerbitzua euskaraz ematea

ttipi-ttapa

6.100 harpidedun
21.000 irakurle

ttipi-ttapa
Zure klienteek
ikusiko dute
zure publizitatea



zimeldi

PARETAKO ARMAIRUTAN MERKATUKO AUKERARIK HAUNDIENA

- ➔ Paretako armairuak logela, sukalde, bainugela, liburutegi... eta abarretarako.
- ➔ Armairu barneak.
- ➔ Armairu aitzinaldeak (frenteak).
- ➔ Gela erdibitzeko ate korrederak.
- ➔ Apalak (estanteriak).

NEVES

**ESKATU AURREKONTUA
KONPROMISORIK GABE**

Zimeldi • Tfnoa: 38 70 17 • ETXALAR

*zinemak
100 urte...
euskarak!
milaka!*

**BAZTANGO
AEK**

95-96 Ikasturtea

**.....
EUSKARA IKASTAROAK
.....**

maila eta ordutegi guztiak,
alfabetatze, EGA ...
eskeintza bereziak:
guraso taldeak,
trinkoak ...

**INFORMAZIOA
ETA MATRIKULA**

Elizondoko Ikastola
Tfnoa. 45 24 71

Golpez 10etatik 1etara
Arratsaldez 4etatik 6etara

**... eta barnetegiak
FORU eta ONDARROAN
informazioa:
625 35 69**

dek


*izen
Leman*

euskaltegi eta barnetegietan!

NEKAZARI, ABELTZAIN

ZURE ETORKIZUNA ZIURTATZEA

GURE PLANGINTZAN SARTUA DAGO



NAFARROAKO GOBERNUAREN LAGUNTZAK

PENTISIO PLANGINTZETARAKO

Caja Ruralen etorkizunerako plagintza onena daukagu zuretzat: nekazari eta abeltzainendako gure Pentsio Plangintza berezia, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza duena.

Zure neurrira egindako Plangintza. Zure etorkizuna ziurtatzea guttiago kosta dakizun.

Etor zaitez Caja Ruralera eta aukeratu zure Pentsio Plangintza.

Oinak lurrean ezarriz.

**CAJA RURALeko
BULEGOETAN
INFORMA ZAITEZ
EPEA IRAILAREN 30ean
BUKATUKO DA**



CAJA RURAL DE NAVARRA